

# Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

Zesar Martinez  
Beatriz Casado  
Pedro Ibarra

Lan-Koadernoak / Cuadernos de Trabajo • Hegoa, 57. zbk., 2012  
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

## Erredakzio Kontseilua

**Zuzendaria:** Patxi Zabalo  
**Idazkaria:** Mari José Martínez  
**Diruzaina:** Eduardo Bidaurratzaga  
**Kideak:** Elena Martínez Tola  
Jokin Alberdi  
Gloria Guzmán  
Amaia Guerrero

## Argitalpen Kontseilua

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ekuador)  
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU  
Roberto Bermejo. UPV/EHU  
Carlos Berzosa. Madrilgo Unibertsitate Komplutensea  
Cristina Carrasco. Bartzelonako Unibertsitatea  
Manuela De Paz, Huelvako Unibertsitatea  
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU  
Caterina García Segura. Pompeu Fabra Unibertsitatea  
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)  
Begoña Gutiérrez. Zaragozako Unibertsitatea  
Yayo Herrero. Ecologistak Martxan  
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU  
Carmen Magallón. Bakerako Ikerketa Mintegia Fundazioa  
Huelvako Unibertsitatea  
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Erresuma Batua)  
María Oianguren. Gernika Gogoratzuz  
Jenny Pearce. University of Bradford (Erresuma Batua)  
Itziar Ruiz-Giménez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.  
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU  
José M<sup>a</sup> Tortosa. Alacanteko Unibertsitatea  
Koldo Unceta Satrustegui. Hegoa, UPV/EHU

*Hegoa lan-koadernoak* aldizkako argitalpena da, Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa izeneko Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuak, 1989. urtetik aurrera argitaratzen emandakoa, Diziplina arteko eta diziplina anitzeko ikuspegia izanik, argitalpen honek argitaratzen dituen azterketak ikerkuntza berezi, enpiriko edo teoriko baten emaitza dira, eta giza garapenaren eta lankidetzaren eraldatzailearen eremuko arazo, esparru analitiko eta jarduerari buruzko alderdi zabal bat lantzen dute.

*Hegoa lan-koadernoak* aldizkariak izaera monografikoa du, urtean hiru aldiz argitaratzen da, eta ale bakoitza lan zehatz bati eskaintzen zaio, beste aldizkari batzuetako artikuluetan ohikoa dena baino hedadura zabalagoz. Paperean ateratzen da, baina euskarri elektronikoan ere eskura daiteke Hegoaren webgune (<http://www.hegoa.ehu.es>).

## Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

Egilea: Zesar Martínez. Beatriz Casado. Pedro Ibarra.  
Itzulpena: Irene Hurtado Mendieta (Hitzek)  
Hegoaren Lan-koadernoak • 57. zbk. • 2012  
Lege-gordailua: Bi-1473-91

Hegoa  
[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU. Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre etorbidea, 81  
48015 Bilbo  
Tel.: 94 601 70 91  
Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

Carlos Santamaría zentroa. UPV/EHU  
Elhuyar plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 01 74 64  
Faxa: 94 601 70 40  
[maribi\\_lamas@ehu.es](mailto:maribi_lamas@ehu.es)

Arabako Campuseko Liburutegia.  
138. posta-kutxa. UPV/EHU  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. / Faxa: 945 01 42 87  
[alicia\\_lopezdemunain@ehu.es](mailto:alicia_lopezdemunain@ehu.es)

Inprimatzea: Lankopi, S.A.  
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

*Hegoa Lan-koadernoak* sailean argitaratzen diren artikuluen guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira: Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Lizentzia osoa:



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

# Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak

**Zesar Martinez.** Soziologian doktorea eta Gizarte Zientzietako Metodologiako irakaslea da UPV/EHUtik. Hainbat ikerlan egin ditu parte-hartze politikoari buruz eta ikerketa-ekintzari buruz. Bere oraingo ikerketa-ildoak komunitatearen dinamizazioarekin eta parte-hartzea bultzatzen duten metodologiekin du zerikusia. Une honetan, gai horiei buruzko proiektuak lantzen ari da Hegoa Institutuan eta Joxemi Zumalabe Fundazioan. [zesar.martinez@ehu.es](mailto:zesar.martinez@ehu.es)

**Beatriz Casado.** Antropologian lizentziaduna da Miguel Hernandez Unibertsitatetik (Elx). Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenerako Maisutza du egina Euskal Herriko Unibertsitatean (Hegoa Institutua). Une honetan, Hegoaren Garapenari buruzko Ikasketen doktoregoko programa egiten ari da. Gizarte-mugimenduei buruzko ikerketa-taldeko kidea da. [beatrizcasadob@gmail.com](mailto:beatrizcasadob@gmail.com)

**Pedro Ibarra.** Zientzia Politikoko katedraduna da UPV/EHUtik (erretiratu). *Partehartuz* taldeko zuzendari ohia da (gaur egun, aholkularia). UPV/EHUko Ikerketako Talde Finkatu horrek herritarren parte-hartzea bultzatzeko prozesuak ikertzen jarduten du. Hona hemen atara dituen azken argitalpenetako batzuk: “Democracia relacional”; “Sociedad civil y movimientos sociales”; “Nacionalismo. Razón y pasión”; “Social movements and Democracy”. [p.ibarraguell@gmail.com](mailto:p.ibarraguell@gmail.com)



Jasoa: 2012/07/19

Onartuta: 2012/11//05



## Laburpena

Eskuartearen duzun lan koaderno honek, ondoren argitaratuko ditugun beste liburu eta lan-koadernoekin batera, Hegoa Institutuak azken urteetan sustatu duen eztabaida eta ikerketa prozesu kolektibo baten berri ematen du.

Eztabaida eta ikerketa prozesu horrek ekarpena egin nahi dio nazioarteko lankidetzaren berrikusketa sakon bati, eta berrikusketa horrek daukan erronka nagusi bati: parametro estrategiko, politiko, tekniko eta administratibo berriak sortzea nazioarteko lankidetzaren tresna egokia izan dadin jendarte-mugimenduak sendotzeko, subjektu politiko estrategikoak baitira justizia soziala eta prozesu askatzaileak eraikitzeko orduan.

Lan-prozesu horren barruan, argitalpen honetan jendarte-mugimenduak subjektu politiko estrategiko gisa irudikatzea proposatzen dugu, horretarako azken hamarkadetan jendarte-mugimenduen azterketan garatu diren ikuspegi desberdinen irakurketa gaurkotua egingo dugu; eta arreta berezia egingo diegu jendarte-mugimenduek kontinente amerikarrean egindako borroka eta jardute askatzaileak sortu dituzten debate eta planteamendu berritzaileei. Izan ere, Hegoamerikako herri mugimenduek status quoaren egonkortasuna galarazteko izan duten indarragatik eta proposamenak egiteko orduan erakutsi duten sormenagatik, eragina handia izan dute eta badute mundu osoko ekintzaileengan eta jendarte-mugimenduengan. Era berean, testuaren azken zatian, jendarte-mugimenduek eraikitako errealitateak ikusteko, interpretatzeko eta haien aurrean jarrera bat hartzeko proposamen edo gonbidapen bat egingo dugu. Proposamen hori oraindik eraikitzen ari gara eta garapen zabalago bat izango du datozen hilabeteetan argitaratuko dugun hurrengo lan-koaderno batean.

**Gako-hitzak:** jendarte-mugimenduak, emantzipazioa, dekolonizazioa, soziologia, historia.

## Resumen

Este Cuaderno de Trabajo es la primera de una serie de publicaciones que dan cuenta de un proceso colectivo de debate e investigación que viene desarrollándose en los últimos años impulsado por el Instituto Hegoa.

Este proceso pretende contribuir a la elaboración, de manera colectiva, de nuevos parámetros estratégicos, políticos, técnicos y administrativos para que la cooperación internacional pueda convertirse en una herramienta que favorezca el fortalecimiento de los movimientos sociales como sujetos políticos estratégicos a la hora de impulsar procesos de emancipación y justicia social.

Presentamos, dentro de ese proceso de trabajo colectivo, una lectura actualizada de las diferentes perspectivas de análisis desarrolladas en las últimas décadas en el estudio de los movimientos sociales, prestando especial atención a los debates y aportaciones más recientes estimulados por las luchas y prácticas emancipadoras de los movimientos sociales en el continente americano, ya que, por su potencia desestabilizadora y su creatividad propositiva, influyen en activistas y movimientos sociales de todo el mundo. Así mismo, en la última parte del texto se presenta para el debate social una propuesta analítica o invitación a mirar, interpretar y posicionarse respecto a las realidades construidas por los movimientos sociales. Propuesta que tendrá un desarrollo más completo en un posterior Cuaderno de Trabajo que se publicará en los próximos meses.

**Palabras clave:** movimientos sociales, emancipación, descolonización, sociología, historia.

## Abstract

This Working Paper is the first in a series of publications that illustrates the collective process of debate and research developed in the last years by the Instituto Hegoa. This process intends to contribute -collectively- to the development of new strategic political, technical and administrative standards, so the international cooperation can become a tool to support the strength of social movements as strategic political subjects in terms of enhancing emancipating processes and social justice.

In this process of collective work we present an updated interpretation of the different analytic perspectives developed in the last decades about the study of social movements, paying special attention to the most recent debates and contributions fostered by the emancipating practices and actions of social movements in the American continent; since they influence activists and social movements around the world due to their destabilising power and the creativity of their proposals.

However, the last part of the text presents for public debate an analytical proposal or invitation to observe, interpret and position regarding the realities built by social movements. This proposal is going to be developed in depth in a further Working paper that will be published in the coming months.

**Key words:** social movements, emancipation, decolonization, sociology, history.



## Aurkibidea

1. Jendarte-mugimenduak askapen subjektu gisa	7
2. Ibilbide analitiko bat jendarte-mugimenduen azterketan barrena	11
2.1. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetako aukera analitikoak	11
2.2. Mundu mailako erresistentzia eta alterglobalismoa	14
2.3. Latinoamerikan azaltzen ari den pentsamendu sozial kritikoa	19
2.3.1. Auzi epistemologikoa: jakintza botere-tresna gisa	21
2.3.2. Jendarte-mugimenduei buruzko proposamenak ikuspegi epistemologiko berrietatik abiatuta	26
3. Gure proposamen analitikoa	29
3.1. Jendarte-mugimenduen egokitasuna menpekotasunetik askatzeko subjektu diren aldetik	32
Bibliografia	37





## I. Jendarte-mugimenduak askapen subjektu gisa

Azken hamarkadetan gizartean izaten ari diren aldaketen konplexutasun eta aniztasunaren ondorioz, mota ezberdinetako asaldurak, krisiak eta jendarte-mobilizazioak azaltzen ari dira; eta, aldi berean, nabarmen aldatzen ari dira praktika eta borroka askatzaileak ulertzeko baliatzen genituen pentsamenduko kategoriak eta eskemak.

Era askotako asaldurak edo krisiak ikus ditzakegu: finantzarioak, energetikoak, klimatikoak, lanekoak, elikadurakoak, egunero bizitzari eusteko pertsonen eman beharreko zaintzen krisia<sup>1</sup>, etab. Eta, jakina, ezin bestela izan, asaldura sozio-politikoak ere azalarazten ari dira: protestak, mobilizazioak, eta ezinegona edo haserrea adierazteko modu desberdinak; izan ere, botere ekonomikoak eta haien eliteak gailentzen ari dira demokrazia formalaren botere politikoen gainetik, sistema politikoa krisian dago ordezkari eta sinesgarritasun aldetik, eta botere ekonomikoaren nagusitasun horrek ezinegona eta haserrea sorrarazten ditu.

Ahots ugari adierazten ari diren moduan, boterea eta instituzioen politika aldendu edo sardetu egin dira. Ignacio Ramonet-ek metafora egoki baten bidez ematen du aditzera: “(...) Orain dela gutxi arte, nahastu egiten ziren politika eta boterea. Gaur egun, Europa neoliberalan, ez da horrelakorik gertatzen. Agintari politiko batek hauteskundeak irabazi arren, horrek ez dio bermatzen benetan boterea izango duenik. Izan ere, hauteskunderetan hautatuak izan ez diren bi botere goren daude politikarien gainetik, zein jokabide izan behar duten adierazten dieten bi botere: Europako teknokrazia eta finantzako merkatuak. (...) Bi ibaiertz zurrun horien ur-jarioan harrapatu, politikaren ibaiak norabide bakar baterantz egin behar du aurrera ezinbestez, bestelako maniobrarik egiteko ia aukerarik gabe. Hau da, botererik gabe”. Zygmunt Baumanen aipamen bat jarritz, Ramonet-ek honela bukatzen du: “sistema politiko berri bat eraiki behar dugu, bizitzeko eredu berria eduki ahal izateko, eta herriaren benetako demokrazia berria lortu ahal izateko”<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> “Zaintzaren krisiaren ondorioz, hautsi da egitura ekonomiko, lan-merkatu eta gizartearen ongizatearen multzo osoari eusten zion zaintzak banatzeko aurreko sistema. (...) Zaintzen arloan egunerokotasunean azalarazten dira eredu horren egiturazko arazoak. (...) Sexuaren araberako lan-banaketa klasikoan oinarritzen zen, hau da, maila makro batean emakumeei zaintza ikusezinen lana esleitzea, ez-lanak deitutakoak, eta gizonei, berriz, lantzat onartutako lanaren arloa ematea, soldatako lana, alegia. (...) emakumeak agerian daude, eraginkor, baina soilik arlo ekonomiko ikusezinetan, doako lanen arloetan. Eta “absentzia” edo ikusezintasun hori ezinbestekoa zen sistemak aurrera egiten jarrai zezan, bizitzari eusteko eta bizitza ekoizteko kostu guztiak horra boteaz, kapitala metatzeko logikari jarraiki, bizitzari lehentasuna eman beharrean” (Pérez Orozco, 2010). “Horrela, zainketen kate global bat sortzen da, eta, bertan, emakume etorkinek lantzat hartzen dute haurrak eta adinekoak zaintzeko lana, garbiketa eta elikaduraz arduratzea, laguntza ematea, etab., azken batean, gizarte-egoerarik ahulenean dauden emakumeentzat sortutako lan ez-egonkorren merkatua. (...) Agerian uzten dute eginkizun horiexek dituztela beren sorterrietan, eta, han, beste emakume batzuek -amonek, ahizpek, etab.- hartuko dituztela lan horiek beren gain, ahal bezala hartu ere” (Herrero eta Pascual, 2010).

<sup>2</sup> Le Monde diplomatique, 203, 2012ko iraila.

Egia esan, 1989. urtean Berlingo harresia erortzean piztu zen euforia merkantilista eta kapitalistaren ondorioz, eztabaida politikoak bukatu ziren, harrez gero ideologia ultraliberalak izan baitzuen nagusitasun osoa; eta ideologia horrek gizartea erregulatzen oinarritzko tresna bezala merkatuak eta haien logika espekulatuak goratzen zituen. Horrela, estatuen gaineko instituzioen indartze-joera baten eskutik, ekonomia gero eta gehiago desarautzea eta sektore publikoa gutxiagotzea/pribatizatzea dator, eta horrek areagotzen du enpresa transnacionalen eta finantzako eliteen boterea. Beste gertakari global batzuek ere era nabarmenean eraldatu dituzte sistema-munduaren koordenatuak, adibidez, hedabideen teknologien hedapena, migrazioko fluxuen garrantzia, edota Asian eta Latinoamerikan botere ekonomikoko guneak indartzea. Dena den, sistema-mundu honek, mundu mailako asaldurek eta krisiak astinduta, zibilizazio-krisi sistemiko batean sartzen ari dela planteatzen ari diren ahotsak gero eta ugariagoak dira.

Hain zuzen ere, borroka politikoen zentzua eta norabidea azpikoz gora jarri dituen osagaietako bat, globalizazio neoliberalak estatuaren eginkizun historikoetan ekarri duen astindua izan da. Argi eta garbi esan daiteke estatuak, lehen subjektu burujabe nagusiak ziren horiek, orain, botere-kateen eta sareen barruko eragile bat gehiago besterik ez direla, eta kate zein sare horietan beste eragile ari direla gero eta gehiago gailentzen eta eragiteko gaitasun gehiago izaten: enpresa transnacionalek, erakunde multilateralek, elite teknokratek eta finantzako eliteek (kalifikazioko agentziak barne hartuta, jakina) erabat baldintzatzen dituzte gobernuen politikak, eta estatu bakoitzak eskualdeko edo munduko geopolitikan duen zentralitatea edo marjinalitatea aintzat hartuta, lobby berri eta erakunde multilateral horiek gutxiengo batzuen interes partikularren aldeko politikak ezartzen dituzte. Egoera horrek ez dakar, besterik gabe, estatuak burujabetasun osoa galtzea; izan ere, erabakiak hartzeko eta boterea eskuratzeko gune bakarrak ez badira ere, estatuak oso zeregin garrantzitsua dute oraindik gizarte-

bizitzaren erregulazioan eta kontrolean. Hau da, estatuak ez dira abian dauden espekulazio-prozesuetako eragile pasiboak edo bigarren mailakoak, prozesu horiek indartzen dituzten eragileak dira eta haien rol nagusia eta zentralitatea aldatzen da haien artean dituzten harreman hierarkikoen arabera.

Nolanahi ere, ekonomia eta finantzako eliteek gero eta botere gehiago dute, eta, hortaz, estatua eta administrazio publikoa gero eta indargabeago dago gizarte-bizitza erregulatzen eta eraldatzen dituzten politiken erabakigune izateari dagokionez. Horrek konplexutasuna ekarri du botereari buruzko eztabaidetan eta jendarte-mugimenduek borrokatzeko dituzten estrategietan, benetako boterea non dagoen eta antagonistak zeintzuk diren. Horrexegatik, joan den hamarkadaren hasieratik hona, borroka sozialak biziki areagotzen ari dira boterea metatzen joan diren nazioz gairako erakunde eta eragile horietako batzuei aurre egiteko: Munduko Merkataritza Erakundea, Nazioarteko Diru Funtza, Munduko Bankua edo G8 taldearen aurkako protestak; enpresa transnacionalen eta haien megaproiektuen aurkako mobilizazioak; edota Wall Street-en aurka izan direnak -finantzako espekulazioaren adierazgarri nagusia bezala- zalantzan jartzen ari dira, mundu-mailako ordena bipolarra bukatu zenetik, kapitalismo neoliberalak munduan barrena hedatu duen nagusitasuna.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia izango dute kontinente amerikarrean jendarte-mugimenduek menperatzaileetatik askatzeko egindako borroak eta jarduerak. Izan ere, ezegonkortzeko duten indarra eta proposamenak egiteko duten sormenezko gaitasuna ikusita, eragin nabaria dute mundu osoko ekintzaileengan eta jendarte-mugimenduen baitan<sup>3</sup>.

Egia esan, sistema-mundu honen periferia edo ertzetatik, Latinoamerikako nekazarien, indigenen, feministen eta auzoetako erakundeek eta sareek egindako altxamenduek eta praktika eraikitzaileek hainbat

<sup>3</sup> “Hegoamerikan gizarte-mobilizazioko prozesu iraunkorrek “joan daitezela denak!” esaldiaren espirituan hartzen zuten indarra eta protagonista gisa indigenen, auzokoen, emakumeen eta bestelako taldeen erakundeak zituzten. Argentina, Ekuador, Bolivia eta -testuinguru pixka bat desberdinagoan- Peruko gobernuak bota zituzten. [...] Boliviako El Alto-tikako jaitsierak, Brasilgo MSTren okupazioak, edota Mexikoko zapatistek “caracoles” (barraskiloak) deitutako gune politiko autonomoen eraikuntza ez ziren soilik izan neoliberalismoaren ondorioen aurkako protesten emaitza. Hori baino gehiago, Fukuyamaren “historiaren amaierako” imaginario neoliberalaren asmo hegemonikoak edota M. Thatcher-en “ez dago alternatibarik” esaldia ezeztatu zituzten, eta, era berean, sakonki astindu zuten botere historiko eredu bat, Anfal Quijanok mendebaldeko modernitatearen “boterearen kolonialitatea” deitzen duena (Hoetmer, 2009: 12-13).

eztabaida indartu dituzte; zehazki, modernotasunaren eta kapitalismoaren oinarriak sakonki astintzen dituzten eztabaidak, eta kolonialismo ideologiko-kulturalak orain arte isildu dituen planteamenduekin indartu ere. Izan ere, kapitalismoaren kontrako jakintzen eta ideologia kritikoen ekoizpenean ere, kolonialismo kulturalak mendebaldeko modernotasunaren parametro teoriko-kontzeptualen nagusitasuna ezarri du. Hargatik, lan honetan lehenetsuz hurbilduko gara Latinoamerikatik azaltzen ari den pentsamendu kritikoa proposamen teoriko eta analitikoetara; eta, era horretan, jendarte-mugimenduei buruzko azterketan mendebaldean baizik ardatzen ez den ulermenetik harantz joateko erronkari helduko diogu. Horrela, ikuspegi de-kolonial baten bidez, ertz edo *periferietatik* eta *periferiekin* ikasi ahal izango dugu; bertan dauden guneetatik ageriago jar baitaitezke agerian finkatuta dauden eta menpekotasunak sortzen dituzten botere eta jakintzaren egiturak. Arrazoi bera dela-eta, arreta berezia egingo diogu pentsamendu feministak azken hamarkadetan sortu duen ekoizpen kognitiboari, ohiz kanpoko gaitasuna erakutsi baitu nagusi diren postulu epistemologikoak eta teorikoak era kritikoan berrikusteko.

Mugimenduek eztabaida sozialean eta politikoan sarrarazi dituzten kontzeptu eta ikuspegi berrien eskutik, ekintzaileek eta ikertzaileek berrikusi eta aldatu dituzte orain arte jendarte-mugimenduen ekintza aztertze eta interpretatzeko erabili diren kategoriak eta egin diren hurbilpenak. Zentzu horretan trantsizio paradigmatico bat dago martxan (Santos, 2006) eta horrek aukera ematen du errealitate sozio-politiko behatzeko modua berriz aztertze, eta behatzaileak eta berak aditu gisa sortzen duen jakintzak betetzen duen zeregin ez neutralaz ohartzeko<sup>4</sup>. Hala, esate baterako, Peruko Universidad Nacional Mayor de San Marcosen 2007ko azaroan antolatutako Demokratizazio Globalerako II. Foroan, hauxe nabarmendu zen politika berriz aztertze lehen erronka gisa:

“...globalizazioen testuinguruari begira eta menpe-rakuntzako harremanen indarra eta konplexutasuna aintzat hartuta, ezinbestekoa da bide askatzaileak berriz asmatzea eta urratzea. Bide

horiek behar adina indartu izan beharko dute, imajinario eta jardute kapitalista neoliberalak egunerokotasunean sakon barneratzeko duten botereari aurre egiteko [...]. Planeta osoko mugimenduetan eta borroketan, dagoeneko eraikita daude bestelako gizarte-harremanak, eredu ekonomikoak, banakako eta taldeko eskubideak, eta demokraziako praktikak, eta horiek zantzuak dira eraldatzeko prozesu handiagoak abiarazteko. Ildo horretan, oraingo errealitatearen aurrean dauden alternatibak behetik sortzen ari dira, eta agerian jarri, sakondu, hedatu eta teorizatu behar ditugu, beste arlo batzuetan aldaketa sakonagoak egon daitezzen, [...] aldaketa horiek guztiz kulturalak dira, demokrazia, autonomia, gorputza, natura eta lurraldeari buruzko bestelako ikuskeren eta gizarte praktiken esku etorriko baitira” (Hoetmer, 2009: 15).

Ildo horretan, lan honen bidez, jendarte-mugimenduegana hurbildu nahi dugu menpekotasunetatik askatzeko subjektu estrategikoak diren aldetik, eta menpekotasunak eta zapalketak gainditu nahian mugimenduek egiten dituzten ekarpen kognitiboak, harremanezkoak eta materialak aztertu nahi ditugu.

Hurbilpen hori abiatuko dugu azken hamarkadetan jendarte-mugimenduak aztertze garatu diren ikuspegi analitikoetatik ibilbide labur eta kritiko bat eginez.

<sup>4</sup> “Hortaz, ikuspegi honi asko interesatzen zaio jakintzaren geopolitika, hau da, jakintza nork, zein testuingurutan eta norentzat ekoizten duen eztabaidatzea” (Sousa, 2008: 46).



## 2. Ibilbide analitiko bat jendarte-mugimenduen azterketan barrena

### 2. 1. Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetako aukera analitikoak

Denboraldi horretan, funtsean, bi ikuspegi analitiko hauek daude:

- A) Ikuspegi “arrazionalista instrumentala” jendarte-mugimenduen azterketan. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera ezarritako *baliabideak mobilizatzeko teoriaren* arabera (Resource Mobilization Theory, RMT), gizarte-mugimenduek guztiz arrazionalak diren taldeko jokabideak dituzte, helburu politiko eta sozial zehatzak izanda, eta mobilizatzeko eta helburu horietarako bereziki egokiak diren baliabideak (giza baliabideak, antolakuntzakoak, materialak, taktikoak, etab.) eskuratzeko estrategiez hornituta. Ikuspegi horren arabera, aurrez ikusteko moduko kate kausal mugatu batzuk daude, oso trinkoa ez den eta, hargatik, zientifikoki mugatzeko modukoa den ehun batez eginak; motibazioen, ondorioen, testuinguruko eraginen eta zikloen ehuna da hori, eta, haren bidez, gizarte-mugimendu baten jaiotza, bizitza eta desagertzea jarraitu eta uler dezakegu. Eta, mugimenduen ikuspegi logiko/instrumental horretatik abiatuta, baterako hurbilpena lor daiteke. Dena barne hartuko duen hurbilpena, zenbait aldagai daudela onartuko lukeena; eta, aldagai horiek aurrez iragartzeko moduko egiturazko krisien, motibazioen eta testuinguru zenbagarrien ondorioa direnez, jokabide kolektiboen aurreikuspenak eta legeak ezar litezke.

Hala ere, oraintxe adierazi dugunez, RMT teoriak batasun analitikoa egiteko proposamena egiten badu ere, teoria horrek mobilizazio prozesuen alderdi jakin bat hautatzen du. Teoria horren arabera, mugimenduak bere burua antolatze duen modua da nabarmenena. Izan ere, bere jendea eta ingurunea antolatzen ditu, sistema politiko barruko agintariei zuzendutako aldarrikapenen bidez aurrerapenak lortzeko hark ordezkatzeko dituen talde-interesetan. Ildo horretan, RMT teoriak bazterrean uzten ditu mugimendua sortzeko arrazioen garrantzia eta, orobat, mugimenduaren nortasun-alderdia. Izan ere, mugimendua mundua kolektiboki definitzeko eta proposatzeko modu alternatiboa da, instituzionalizatutako sistema politikotik harantz doana.

Ikuspegi horri loturik, laurogeiko hamarkadatik aurrera oro har prozesu politikoaren eta bereziki aukera politikoaren egituraren ikuspegia (Political Opportunity Structure; POS) zabaltzen da. Horren arabera, estatua eta bere sistema politiko-instituzionala dira mugimenduen estrategia eratzen duten eragile nagusiak. Mugimenduen eta sistema politiko eta instituzionalaren arteko harreman eragin-trukatzailean, ikuspegi analitiko horretatik bereziki nabarmentzen dena ez da botere politiko instituzionalizatuak zer erabakitzen duen edo nola antolatzen duen erabakitze prozesua, mugimenduen ekintzatik abiatuta. Aitzitik, oroz gain azpimarratzen dute mugimenduek nola doitzen dituz-

ten beren baliabideak eta estrategia diskurtsibo zein mobilizatzaileak sistema politikoaren nola-halako irekiera edo itxieraren arabera, edo elite politikoaren arteko harremanen eta hausturen arabera, edota mugimenduaren aliatu politiko instituzionalizatuak zein izan daitezkeen ikusita.

- B) RMT teoriaren aukera analitikoari Gizarte Mugimendu Berrien (GMB) ikuspegiak ematen dio erantzuna. Ikuspegi horren arabera, garrantzi gehien duena ez dira prozesu antolatzaileak eta testuinguru politikoak, baizik eta jatorriaren kausalitatea eta nortasunaren eraikuntza. Bereziki nabarmentzen da egiturazko krisi jakin batzuek (batez ere kultura-arloek) mugimenduak sorrarazten dituztela, eta mugimendu horiek beren inguruetik bereizten ahalegintzen direla, eta, horretarako, beren taldeko nortasuna sortzen dutela, desberdinak izanik errealitate desberdina sustatu. RMT teoriak jakintzat ematen du jendarte-mugimenduak jokaera politikoaren beste molde normalizatu bat direla, Gizarte Mugimendu Berrien ikuspegiaren, aldiz, gizarte-mugimenduak jokabide politiko alternatibo bat dira.

Ikuspegi diskurtsiboek bat egiten dute Ikuspuntu horrekin. Ikuspegi horietatik, eta, bereziki, *frame analysis* deitutakoak egindako hurbilpenen bidez, ondo behatu nahi da mugimenduak nola eraikitzen duen munduaz duen ikuspegi berezkoa, alternatiboa eta polemikoa; eta, ikusmolde zein diskurtso hori baliatuz, nola finkatzen duen bere nortasuna eta nola mobilizatzen dituen bere aldekoak eta bere ingurunea.

Ikuspegi kulturalista honek joera nabarmena du azpimarratzeko alderdi sinbolikoak -pentsatzeko

eskemak, oinarriak, balioak-, expresiboak -komunikatzeko, mobilizatzeko eta bizitzeko moduak eta erreperitorioak-, eta apurtzaileak -ezarritako gizarte-sistemarekiko bateragarritasun-mugetatik harantz doazen ikuspegi politikoak- (Melucci, 1996). Adierazgarriena zera da, mugimenduen eta ekintzaileen eguneroko bizitzaren munduan eraikitzen diren baieztapen alternatiboak: kide izateko sentimenduak (nortasuna), pentsamendu kritikoen eskemetatik abiatuta salatzen dituzten gehiegikeriak, pribilegioak eta bereizkeriak; aurkariak nortzuk diren zehaztea, haiekin antagonismoan eta gatazkan oinarritutako harremana izatea; eta, azkenik, ideologikoki eta kognitiboki astintzea ezarritako gizarte-ereduaren egiturazko zutabeak. Hargatik, mugimendua eratzen duen originaltasun horrek sakonki astintzen du hegemonia bereganatu duen marko kulturala (Touraine, 1990) eta egiturazko egonkortasuna, politikoa zein ekonomikoa (Offe, 1988).

Laurogeiko hamarkadaren amaieran, egoera guztiz zatikatuta zegoen bi ikusmolde horien artean: alde batetik instrumentalistak (RMT) -hala deituko diegu eta bestetik kulturalistak (GMB); hau da, alde batetik, mugimenduak nola antolatzen ziren eta sistema politiko-instituzionalarekin zuten harremana nabarmentzen zutenak, eta, bestetik, zergatik antolatzen ziren eta nortasun-, diskurtso- eta politika-arloan zer-nolako ekoizpen alternatiboa egiten zuten azpimarratzen zutenak<sup>5</sup>.

Hala ere, hamarkada aldatzean, hau da, laurogeiko hamarkadaren bukaera eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera artean, eredu integratzaile bat sortzeko hurbiltze-prozesuaz hitz egin daiteke, edo, adierazpena muturreraino eramanda, prozesu bateratua

<sup>5</sup> Nolabait esan daiteke RMT ipar-amerikarra dela, laurogeiko hamarkadan izan zuela arrakasta akademikoa, eta haren egilerik garrantzitsuenak Mc Carthy & Zald direla (hauxe da testurik ezagunena: Mc Carthy eta Zald, 1987). Hala ere, aditzera eman behar da Ipar Amerikako egilerik nabarmenetako batzuek -Tilly, Mc Adam, Tarrow, Gamson, Snow- beti hautatu zutela hain funtzionala ez zen ildo bat, kulturalista eta europarragoa, eta, era berean, "makroagoa" zen ildoak, beren kide ipar-amerikarren lan zehatz baina murrizten aurrez aurre jarria. Azkenean, haiek gidatu zituzten proposamenik integratzaileenak. Aukera politikoaren egitura eta prozesuaren ikuspegiari dagokionez, lehen aipatutako Tilly (1978), Tarrow (1997), Kitschelt (1986) eta Mac Adam (1998) ipar-amerikarrez gain, Europako zenbait egileren lanak nabarmentzen dira: Kriesi (1992), Della Porta, D. eta Rucht, D. (1995).

Hona hemen GMB eskolako europarrik ezagunenak: Touraine (1984), Offe (1988), Melucci (1995 eta 1996), Inglehart (1991); ikusi, era berean Dalton & Kuechier-en talde-lana (1992), eta Riechmann, J. eta Fernández Buey, F. egileen testua (1994). Mugimenduen kultura/identitateari dagokionez, ikusi Tejerina, B. (1998). Paradoxikoki, Frame Analysis-eko egilerik garrantzitsuenak Ipar Amerikakoak dira: Goffman (1974) aitzindari gisa, eta, bereziki, Snow-en taldea: Snow eta Benford (1992), Hunt, Benford eta Snow, (1994); ikusi, horrez gain, Eder (1996).

aipa dezakegu, mugimenduen azterketari dagokionez. Urte horietan, akademiako egile ezberdinek ikusmolde bakoitzak dimentsio ezberdinetan zentratua zegoela eta nolabaiteko elkar osagarritasuna onartu zuten. Era askotako prisma analitikoak harremanetan jarriz -ordura arte baztertzaitzat hartutako ikusmoldeak- eredu artikulatu bat onartu zuten.

Bi ikuspegi horietatik ondorio hauek atera ditzakegu, haien artean bat-egite gehiago edo gutxiago dagoen alde batera utzita:

- Azterketarik instrumentalenak munduari buruzko ikuspegi konformista baten barruan txertatzen dira; azterketa hauek bereziki lantzen dute nola baliatzen dituzten mugimenduek eskura dituzten baliabideak beren helburuak lortzeko -edo ez lortzeko-. Jakintzat ematen dute errealitate ekonomikoa, soziala eta politikoa egiturazko bilakaeraren ondorioz aldatzen doala (determinismo eboluzionista). Hortaz, ez dute aintzat hartzen gizakiek egindako ekintzaren eta gizakiek eraturako mugimendu politikoaren ondorioz aldatzen denik; eta, beraz, jakintzat ematen dute jendarte-mugimendu batek -edozein eragile kolektibo bezala- *ahal duena egiten duela*. Horiek horrela, zera da egin ahal den eta egin behar den gauza bakarra: gizarte-sistema edo -eredu horretako bizitza-baldintza batzuk aldatzen saiatu, bere interes homologagarrien eta arrazionalen alde, betiere, sistema horrexen oinarrizko alderdien barruan egonik.

Analisi instrumentalek ia inoiz ez dute mugimenduaren taldeko jarduera sozialaren eragina (arrakasta edo porrota) onartu nahi, eta are gutxiago zenbatetsi. Jakintzat ematen dute, baliabideak era egokian erabiliz gero, mugimendua handituko eta indartuko dela. Eta, era berean, jakintzat ematen dute, indar horren bidez, mugimenduak helburuak bete ahal izango dituela. Atxiki dezagun gogoan esatera hori: *jakintzat ematea*. Etengabe azalduko baita gizarte-mugimenduei buruzko azterketa guztietan -begirada guztietan-.

- Azterketarik kulturalenak gizarte-mugimendu berrien (GMB) interpretazioari lotuta daude, eta haietan bereziki nabarmentzen da desberdinak izateko eta desberdin azaltzeko ideia. Kontua da munduan modu desberdin batean bizitzea eta

jokatzea kolektiboki eta, era berean, beste era batera interpretatzea. Horrenbestez, alde batera uzten dira halabeharrezkotasuna eta naturaltasuna, indarrean dauden egiturena zein hegemonikoa den logika kulturalarena -merkantilista edo instrumentala-.

Instrumentalistek ez bezala, analisi kulturalistek ikuspegia zabaltzen dute, ez dira kokatzen sistemen eta gizarte-ereduaren halabeharrezkotasuna ontzat ematen duen ikusmolde batean. Haien ustez, mugimenduek ezeztatzen dute itxurazkoa baino ez den beharrezkotasun eta mugiezintasun hori, eta bat datoz horrela egitearekin. Begirada analitiko honek ez ditu bere erreferentzia filosofikoak eta baloraziokoak ezkutuan gordetzen, eta, alde horretatik, agerikoa egiten du bere oinarri normatibo edo etiko-politikoa.

Kulturalistek, instrumentalistek bezala baina orain ikuspegi desberdin batekin, ez dute aipatzen *nola* eraikiko den mundu alternatiboa originaltasun alternatibo horretatik abiatuta. Ez dira aztergai mugimenduek sorrarazi dituzten inpaktuak -eta sorraraz ditzaketanak-, badirudi ikuspegi horiek jakintzat ematen dutela borondate askatzailez -edo, zehatzago, jarrera eta praktika askatzailez- jaiotzen eta garatzen den mugimendu batek ekarpen bat egingo diola askapen horri.

- Mugimendu feministaren balioa gutxitzea. 60ko eta 70eko hamarkadetan, *Gerra hotzaren garaian*, kolonialismoaren aurkako askapenerako borroka, ugaritze nuklearra, ikasleen gatazkak eta mendebaldeko gizarte burgesetan zeuden balioak eta bizimodu sakonki astindu zituen kontra-kultura azaldu ziren. Orduan, jendarte-mugimendu batzuk zenbait protesta eta aldarrikapenen jiran elkartu ziren: antimilitaristak, bakezaleak, antiinperialistak, ekologistak, arrazakeriaren aurkakoak (eskubide zibilen aldekoak), errepresioaren aurkakoak eta diziplinaren aurkakoak. Jendarte-mugimendu horiek zenbait gatazka-ardatz eta nortasun kolektiboen arabera eratzen eta mobilizatzen dira; baina agertzen dituzten gatazka-ardatz eta nortasun kolektibo horiek ez dira ordura arteko eredutzat hartzen zen mugimenduak zituenaren antzekoak. Hau da, langileen/sindikatuaren mugimendua ez bezalakoa da. Langile mugimendua, arian-arian, gero eta txertatuago egongo baita ongizate estatuaren sistema politiko-instituzionalean.



60ko eta 70eko hamarkaden artean sortu ziren mugimendu horiei -eta baita mugimendu feminista ere- Gizarte-Mugimendu Berrien etiketa ipini zioten akademikoek, eta horrek agerian jartzen du langileen mugimenduak gizarte-azterketetan zuen zentralitate nagusia eta emakumeen mugimenduaren desbalorazioa. Izan ere, mugimendu feministak ere (langile mugimenduak bezalaxe), XIX. mendean du sorrera eta, beraz, ez dago arrazoirik gizarte-mugimendu berriztat jotzeko. Jendarte-mugimenduei buruzko azterketetan, hortaz, nabarmena da genero-bereizkeria, azterketa horiek ez-ikusia egin baitiote XIX. mendean eta XX. mendeko lehen zatian emakumeek egin zuten borrokari. Borroka feministak 60ko hamarkadan sortu zirela jotzen dute, historikoki berritasuntzat hartzen dute, eta, beraz, azterketa berria egiteko beharra sumatzen dute. Alabaina, hori egiteko, alde batera utzi behar dituzte mugimendu feministek beren ibilbide historikoan izan dituzten jarraikortasuna, berezitasunak eta ekarpen espezifikoak.

Egia esan, 60ko eta 70eko hamarkadetan sortu ziren mugimenduen “berrikuntzari” buruzko eztabaida horrek agerian jartzen du mugimendu feminista, nolabait, baztertuta edo gutxiagotua azaldu dela gizarte-mugimenduen teorietan, hala hurbilpen instrumentalistetan nola kulturalistetan. Mugimendu feministaren ezaugarri historiko batzuk ikusita, agerian da 60ko hamarkadatik aurrera sortu ziren mugimenduei egozten zaien “berrikuntza” askoren aitzindari historikoa izan zela: indarkeriaren aurkako izaera, abangoardien aurkako, nazioarteko izaera, edota alde pertsonala politikotzat hartzeko zituen postulatuak. Hala, bada, hamarkada hori iritsi arte, gizarteko analisisiek nagusitasun ia erabatekoa eman

zioten langileen mugimenduari, baina “gizarteko mugimendu berriek” zalantzan jarriko dute nagusitasun hori: antimilitaristak, antiinperialistak, bakezaleak, ekologistak, arrazakeriaren aurkakoak eta (harritzekoa bada ere) feministak dira-eta. Era horretan, analisi horien joera androzentrikoaren ondorioz, izaera oldarkorra duten ekintza kolektiboaren prozesuak interpretatzean langile mugimenduaren jatorrizko izaera historikoa hartu da oinarritzat. Ez zaio jatorrizko izaera historiko hori aitortu mugimendu feministari, eta, hortaz, balioa kendu zaie historikoki mugimendu feministek izan dituzten ikuspegiei, balioei, aldarrikapenei, antolakuntzako moldeei eta ekintzei.

## 2.2. Mundu mailako erresistentzia eta alterglobalismoa

Urteak aurrera doaz, eta jendarte-mugimenduei buruzko analisi akademikoak bere bidea jarraitzen du. Ahalegin batzuk egiten dira kulturalistek eta instrumentalistek bat egin dezaten, baina, oro har, prozedurazko azterlanak nagusitzen dira; hau da, mugimendu jakin batzuek beren helburuak lortzeko borrokan izandako ibilbidea eta eraginak aztertzen dituzten analisiak.

Hainbat egilek adierazi bezala (Ibarra, 2000; Klandermans eta Roggeband, 2007; Bringelek aipatuak, 2011), argi esan dezakegu 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera ekintza kolektiboa eta jendarte-mugimenduak aztertzeko eremua dinamikoagoa dela, eta irekiago dagoela beste diziplina batzuetara, beste ikasketa-arlo, ikuspegi eta hurbilpen batzuetara, baina, aldi berean, eremu zatikatuagoa eta konplexuagoa ere badela; hortaz, bada:

“Interpretazioko eskolen eta paradigmaren arteko aurreko banaketaren ordez, era plural, eklektiko eta

<sup>6</sup> Eztabaida honek Ipar Amerikan eta Europan izan dituen ondorio teorikoak azaltzen ditu Bringelek, eta, hain zuzen, zera adierazten du: “Nazioartean gero eta eragin gehiago duen Ipar Amerikako *contentious politics* proiektuak aurretiazko ekoizpenarekin jarduten du hizketan (batez ere, prozesu politikoaren teoriarekin eta zenbait ekarpen seminalekin, hala nola, Charles Tillyren soziologia historikoarekin), estrukturalismoarekiko lotura hautsi nahi du, eta interpretazio erlazionalagoak saiatu nahi ditu, gizarte-mugimenduei eta, orobat, erantzun politiko eta sozialeko era askotako moldeei begira (Bringel, 2011; Tarrow, 2011). Europako eztabaida gero eta maizago aritzen da hizketan proiektu horrekin, nahiz eta, oro har, kezka gehiago izan kultura-arloarekiko eta subjektibotasunekiko. Hala ere, ez du erreferente analitiko metatzailerik sorrarazten, garai batean jendarte-mugimendu berrien teoriak sortu zuten moduan. Aldi berean, azken hamarkadan, eskualdean eraginkorren aritu diren mugimenduen eragin empiriko zabal jasotzen du (besteak beste, globalizazioaren aurkako mugimenduarena eta etorkinen borrokarena), eta, halaber, neurri handi batean globalizazio eta modernotasunaren mugei buruzko eztabaidari lotuta dauden hizkuntzako, kulturako eta espazioko “biraketari” eragin teoriko sakona hartzen du” (Bringel, 2011: 2).



inklusiboagoan heltzen zaio gaiari, baina ikuspegi “klasikoen” eragina ez da erabat galtzen. Izan ere, oraintsuko teorizazioaren zati handi batek ez dakar eztabaidaren muturreko berritze bat. Aitzitik, garai eta testuinguru berrietara egokitzeko prozesu bat dela ematen du gehienbat” (Bringel, 2011:2)<sup>6</sup>.

Ekintza kolektiboari eta jendarte-mugimenduei buruzko oraintsuko teorizazioek eztabaida gaurkotu dute, baina ez dute muturreko berrikuntzarik ekarri, eta, gainera, azterketarik estruktural eta orokorrenak berriz piztu dituzten joerak izan dira bitartean. Hain zuzen, 90eko hamarkadan sortu ziren mugimendu alterglobalistei buruz ari gara. Izen horrekin, globalizazio neoliberalari uko egitean mundu alternatibo bat lortzeko aukera lantzen duten mugimenduen multzoaz ari gara. Mugimendu antiglobalistak haus-tura sortzen du, aurreko hamarkadetan gizarteko mobilizazioan nagusi ziren joerekiko, eta beste mota bateko eginkizuna azaltzen du borroka sozialetan aritzeko. Hoetmer-ek honela azaldu zuen:

“Eraso neoliberalaren ekaizpean, 1989. urtean erresistentziako molde berriak ageri ziren, menpe-rakuntza kapitalistari eta horrek munduan barrena eguneroko bizitzan zituen ondorioei aurre egiteko. Caracazoa (1989), Ekuadorren izandako indigenen matxinada (1990) eta Bolivian duin-tasunaren eta lurraldearen alde izan zen ibilaldia (1990), aurrena, oharkabean geratu ziren, edo ordena zaharreko hondakinak balira bezala ulertu ziren. Zapatistek Chiapasen egindako altxaldiak (1994), Hego Koreako greba orokor-rak (1996-1997), Munduko Gizarte Foroaren esparruko altxamenduek (2001etik aurrera), Munduko Merkataritza Erakundearen aurkako protestek Seattlen (1999), G8 taldearen aurkako protestek Genovan (2001), eta Estatu Batuek

Iraken egindako inbasioaren kontra mundu osoan barrena izan ziren protestek (2003) argi utzi zuten beste globalizazio-mota bat zegoela abian, Boaven-tura de Sousa Santosek (2003, 2006) «globalizazio kontrahegemonikoa<sup>7</sup>» eta Francois Houtartek eta Francois Polettek (2000) «erresistentzien globaliza-zioa»<sup>8</sup> deitu dutena (Hoetmer, 2009: 86).

Alabaina, urte asko igaro dira 1999. urtean Seattlen protestak izan zirenetik, protesta horiek zehaztu bai-tzuten mugimenduaren sorrera hedabideetan; eta, dagoeneko, ezin esan daiteke mugimenduak hasieran eta lehenbiziko urteetan zituen ezaugarri berberak di-tuenik. Izan ere, ezinbestekoa da talde-ariketa zabala eta askotarikoa egitea, urte hauetan gertatutakoa eta azalduz joan diren erronkak ebaluatzeko eta ulertze-ko<sup>8</sup>. Mugimenduaren ezaugarriak zehazteko erabili diren terminologia ugariatatik harantz joz (besteak beste, antiglobalizazioa, antikapitalista, altermun-dista, mugimenduen mugimendua, nazioz gaindiko aktibismoa, etab.), eta mugimenduak duen heteroge-notasuna alde batera utzita, jendarte-mugimenduek egin duten berrikuntza kontzeptual eta estrategikoen zati handi bat politika neoliberal eta globalizatzaileen aurka egindako borrokan azaldu da, eta nolabaiteko zerikusia du ezker tradizionalarekiko distantzia-tarte bat hartu izanarekin, hain zuzen, ezkerak aurreko ha-markadetan garatutako jardute politiko “aurrerakoia-rekiko” tarteaz uztearekin. Ildo horretan, munduan barrena zeuden jendarte-mugimenduen eztabaidetan zapatismoak izan zuen eraginak inflexio-puntu ga-rantzitsua izan zen:

“...zapatismoaren ondorioz, berriz formulatu be-har izan ziren ezkerak izan zitzaizkeen aukerak eta erreferentziak (...) boterearen ikuspegi abangoar-disten kontra zihoan mugimendua baitzen. (...) horrek ahalmen handia eman zion zapatismoari

<sup>7</sup> Boaventura de Sousa Santos ustez, globalizazio kontrahegemonikoa zera da: “mundu mailako kapitalismoak baztertu edo zokoratu dituen interesak eta taldeak babesten dituzten mugimenduen, elkarten eta erakundeen nazioz gaindiko jarduera” (Santos, 2006: 84).

<sup>8</sup> Mugimendu alterglobalizatzailearen sorrera eta ezaugarri nagusiak azaldu nahi izan dituzten azterketekin sakontzeko, eta, orobat, mugimenduak izan dituen aldi desberdinak zehazteko, gure gomendioa da Betiko fundazioak argitaratu emandako Gizarte Mugimenduen Urtekariaren irakurketa sekuentziala egitea (<http://www.fundacionbetiko.org>). Bertan, zenbait analistek mugimendu alterglobalizatzaileari buruz egin dituzten artikulua eta hausnarketak aurkituko ditugu, adibidez, hauenak: Martí (2002), González eta Martí (2003), Martí (2004), Calle (2004), Calle (2005), López et al. (2006) eta Bringel et al. (2007, 2008, 2009). Bestetik, oso baliagarria izan daiteke hau irakurtzea: Fernández Buey (2007). Ikuspegi orokorragoa izateko eta estatu espainiarrean ardatzutako irakurketa egiteko, ikusi hau: Durán (2001), Echart et al. (2005), Pastor (2002, 2007) eta Taibo (2005).

erakarpina eta eragina sortzeko: alde batetik, interpelazio berezi eta indartsua egiten zien herri indigenei (...); bestetik, interpelazio globala egiten zuen, politika behealdetik egiteko molde baten alde, politika egiteko molde horrek egiturazko balio gisa hartzen baitzituen autonomia, lokarrien arteko horizontaltasuna eta adostasunaren bidez lortutako demokrazia; eta 60ko hamarkadan sortu ziren gizarte-mugimendu berriek bat egiten zuten balio horiekin. Autodeterminazioa izan zen hain esperientzia desberdinetatik sortutako autonomiaren bi alderdi horiek (indigenena eta 60ko mugimenduena) bateratu zituen gako<sup>9</sup> (Svampa, 2011: 16).

Ezker alderdikari eta iraultzailean nagusitu zen boterearen eta gizartea eraldatzeko teoriaren arabera, gobernu eta estatuaren boterea ezinbestez hartu behar zen, era horretan ekonomian egiturazko aldaketak egin ahal izateko -ekoizpenerako baliabideen jabetze eskuratu eta plangintza estrategikoa burutu-, eta, horrenbestez, klaseen gizartea gainditu ahal izateko, kapital eta lanaren artean dagoen funtsezko kontraesana konponduta. Era horretan, gizarte osoa eraldatzeko zereginari ekiten zaio, lehentasun berezia emanik hezkuntzari, osasunari eta beharrian gehien duten gizarte-sektoreetarako laguntzari, berdintasunean oinarrituta dauden eta, aldi berean, homogeneizatzaileak eta zentralistak diren politika publikoen bidez.

Erakunde feministak eta indigenak aspalditik ari ziren mahaigaineratzen menperakuntza edo zapalkuntza ez dela soilik kapitalaren eta lanaren arteko harreman-kontu bat, edo legeen, instituzioen eta politika publikoen auzi bat. Izan ere, bereizkeriak egunerokoak izaten dira gizarteko eragin-trukearen arlo desberdinetan, ezkerreko erakunde politikoetan ere bai<sup>9</sup>. Hala, beraz, politika ezin da murriztu boterea

eskuratzeko estrategietara, langileen klasea burges kapitalisten aurrez aurre jartzen duen hori oinarritzko kontraesan gisa jarrita (eta ia kontraesan bakar gisa), eta gainerako zapalkuntzak eta borrokak bigarren planoan utzita eta, beraz, beste subjektibotasun politiko batzuk instrumentalizatuz.

Boaventura de Sousa Santosek adierazten digunez (Santos, 2001), langileen identitate kolektiboa eta, hortaz, langileen mugimendua ahulduz joan da, bat-bateko adierazpenetan nola instituzionalizatuta dauden horietan<sup>10</sup>; eta, horren ondorioz, ekoizteko harremanetatik harantz jotzen duten menpekotasun moduen salaketa azaldu da. Zapalkuntza-molde horiek ez dute eraginik gizarteko klase zehatz batean soilik, klase guztietan zeharka azaltzen diren taldeetan baizik, edota gizarte osoan baizik: matxismoa, kolonialismoa eta gerrak, zapalkuntza nazionala eta kulturala, arrazakeria, ingurunea eta lurraldea hondatzea aurrerapenaren izenean (produktibismoa, kontsumismoa)... Hortaz, bada, ideia hau nagusitzen hasiko da: eginkizun askatzaileetan berdin jokatu behar dela menpekotasun-modu guztiekin, hala ekoizpen-harremanekin, nola elkarbizitzakoekin eta bizitza egunerokotasunaren arlo guztietan erreproduzitzeko dauden horiekin. Langileen klaseak edo sindikatuen mugimenduak ez du kokapen edo protagonismo nagusia, ez dagoelako aldaketarako subjektuaren (edo sektore eta mugimendu askatzaileen) aurre-eraketa estruktural bakarra edo lehentasuneko bat.

“...Berlingo harresia erortzean (1989), ordura arte gerra hotzaren estrategia ideologikoaren menpe mugatuta egon ziren jendarte-mugimendu batzuek askatasuna lortu zuten. Hirurogeiko hamarkadako espiritua, azkenik, munduko agertoki politikoan azaleratu izan balitz bezala, gerra hotzaren garaian bi aldeetatik heltzen ziren gaitzespenik gabe (Porto Gonsalves, hemen: Hoetmer 2009: 92).

<sup>9</sup> Hoetmer-ek gogoratzen digun moduan, ezkerrek bere garapen historikoan izan dituen konplexutasunari eta aniztasunari arreta pixka bat eginez gero, garrantzia kendu behar diogu jarraian azpimarratuko ditugun ikuspegi batzuen izaera berritzaileari. Izan ere, ezkerren barruko ahots disidente batzuek beti jarri zituzten zalantzan abangoardismoa, joera ekonomizistak, zentralismoa eta, batzuetan, matxismoa, arrazakeria edota haren altzoan zegoen pertsonalismo elitista (Hoetmer, 2009).

<sup>10</sup> Hainbat eragilek eta gorabehera historikok esku hartu dute horretan. García Linera nabarmentzen duenez, “ekoizpena berregituratzeko prozesuek, enpresa handien itxierak, langileen elkarretaratzeak zatikatu dituen soldatuko lanaren osaera tekniko aldatzeak zorrotz gutxitu dute sindikatuetakoa kide diren langileen kopurua, eta lanaren beste kultura bat sortu dute, langileen lehian oinarritutako kultura. Alabaina, ezin ukatuzkoa da langileen mugimenduak berak ez zituela aukera propositiborik, gizartearen ongizate barruko korporatibismoetik eta askatasun demokratikoen erabilera instrumentaletik harantz joz” (García Linera, 2010: 14).

Ildo horretan, gizartea aldatzea, gizarteko eredia eraldatzeko lana, ez da soilik egiturazkoa den zerbait balitz bezala hartzen, behin boterea eskuratu ondoren (gobernuarena eta instituzionalizatua) eraikitzeko dagoen etorkizuneko proiektu baten moduan. Eman-tzipazioa egunerokotasunean zapalkuntzaren biktimak gutxiagotzen eta menpean hartzen dituzten praktika pertsonalak eta kolektiboak eraldatzeko prozesu gisa azaltzen da. Hala, beraz, eraldaketa askatzailea orainaldiko praktikatik abiatzen da, ez soilik etorkizunean goitik-beherako eraldaketa estruktural osoa lortuko denean. Egunerokoa eta hurbilekoa ez da botere-borrokako estrategia orokorraren menpe geratzen; lehentasunezko eremua izango da mundu eta bizitza hobeak lortzeko borrokan.

Menpekotasuneko praktikak identifikatzea eta zapaltzaileak ez diren praktika alternatiboak eraikitzea inoiz erabat burutuko ez den eginkizuna bihurtzen da, eta ez du berari berariaz dagokion nortasun edo subjektibotasun kolektibo bakarra, tartean era askotako menpekotasunak daudelako. Hala, beraz, askapen prozesuak amaierarik gabekoak dira, bukaerarik ez duten eta beti zabalik dauden prozesuak.

Ezker klasikoak aldaketa sozialaren gainean eraikitako ikuspegi mugatua kritikoki berrikusteaz gain, boterearen teoria-ideologia ere sakonki jartzen da zalan-tzan; estatua gizartearen botere-harremanen multzo zabalaren parte bat gehiago bezala ber-kokatzen da. Michel Foucault-ek historikoki menpekotasuna naturalizatzeke eta justifikatzeko hegemonia bereganatu duten ikuspegiak, imajinarioen eta praktiken gainean egin zituen lanak aintzat hartuta, estatua gizartea maneiatzeko dagoen praktika sozial bat da, eta botere-zko praktika-eremu zabalago baten barruan kokatu beharra dago.

Botereko praktika horien matrize nagusietako bat da botere kolonial moderno edo “boterearen kolonialitate” (Quijano, 2003). Sorrerako mito eboluzionista bat da bere abiaburua, eta, horren arabera, gizadiaren historia naturaren egoeratik Europako modernitate-raino doan lerro bat da; kontratu sozialaren bidez gizaki moderno naturaren egoeratik atera eta zibilizazio-egoerara pasa zen. Banaketa dikotomiko horrekin batera, beste dikotomia batzuk ere ezarri zituzten modernitatearen pentsamenduan, hala nola, primitiboak/

zibilizatua, tradizionala/moderno, herri-jakintzak/ezagutza zientifikoa, emozioa/arrazoia, emakumea/gizona, indigena/zuria. Bigarrenak lehena kolonizatzea eta menpean hartzea naturalizat jotzen da gizakiaren bilakaera historikoaren emaitza gisa, eta ez botere-harreman zapaltzaileen emaitza gisa.

“Natura menderatzeko, eraldatu eta “zibilazio” bilakatu behar delako usteak botere kolonial-modernoaren ulerkera eta praktika erakusten du, eta, hor, polo menderatzaileak/aktiboak ezinbestez zibilizatu/prestatu/diziplinatu behar du menperatutako poloa” (Hoetmer, 2009: 94).

Jendarte-mugimenduek azken hamarkadetan egin dituzten praktika politikoak, beraz, modu osoagoan berrikusi eta birpentsatu dituzte gizartean dauden botere eta menpekotasuneko harremanak. Ikuspegi hauek ez dute soilik instituzionalizatutako botere politikoa eragin nahi, horrez gain, jendarte osoan indarrean dauden botere-harremanak eraldatu nahi dituzte. Nagusitasuna bereganatu duten bizitzeko eta gauzak egiteko moldeak sakonki astinduko dituzten praktika politikoak aktibatzea, nortasun edo subjektibotasun zehatz eta anitzetatik abiatuta: emakumeak, indigenak, ikasleak, gazteak, gay eta lesbianak, lurrik gabeko nekazariak, langabeak edo pikete-taldeak, etab.

Era horretan, gaur egungo mugimenduek ikaske-ta-prozesu gisa agertzen dira, besteak beste, gutxiagotzen eta bereizkeria sortzen ez duten eta kapitalistak ez diren gizarteko praktikak eta harremanak eraikitzeke laborategi gisa (hein batean behintzat); ez dira, beraz, alde aurretik ezarrita dauden estrategia makroen arabera, kapital eta herri langilearen artean dagoen funtsezko kontraesana borrokatzeke eragileak (Hoetmer, 2009: 97). “Jendarte mugimendua emantzipaziorako printzipio hezitzaile” gisa ulertzeak (Caldart 2004, hemen: Bringel, 2011: 6) dakar jakintza sortzea eta sistematizatzea garrantzia hartzea mugimenduetan: mugimenduen bere jakintzak eraikitzen eta egitura-tzen ditu elikatzeke bere prozesu eraldatzailea eta askatzailea (Gohn 2005, hemen: Bringel, 2011).

Aurreko auziez gain, labur-labur, beste hainbat azterketek mugimendu alterglobalizatzaileen (berez, mugimenduen sarea) eztabaidei eta praktikei buruz esandakoak nabarmenduko ditugu:

- Bereziki nabarmendu behar da, 1990eko hamar-kadako pentsamendu neoliberal bakarraren nagusitasunaren eta horrek berekin zekartzan fatalismo eta konformismoaren aurrean, mugimendu hauek erakutsi zuten erresistentzia eta eman zuten erantzuna. Erresistentzia eta erantzuna eztabaida ideologikoak ixteko saiakeraren aurrean eta prozesu historikoek duten, hartzen diren erabaki politikoaren arabera, aukera eta hautabide ezberdinen ukazioaren aurrean. Indarrean dauden prozesu globaletan giza agentzia ukatzeko joera horri aurre eginez, jendarte-mugimenduen sareek seinalatu egiten dituzte, mobilizazioa eta gatazkaren bitartez, prozesu globalizatzaile neoliberalak gidatzen duten eragileak, erabakitze guneak eta ardurdunak; eta, haien aurrez aurre jarritz, ezadostasun ideologikoa eta aurkakotasun politikoa ikustarazten dituzte. Mugimenduen mugimenduak eztabaida ideologikoa eta politikoa zabaltzen du (Martínez, 2002), aukerak eta hautabideak aldarrikatzen ditu beste era bateko munduak sortzeko bidean.
- Mugimenduen sare edota elkargune horiek zilegitasuna ukatzen diote sistemari ez soilik sarrien erakusten duen bazterkeria sortzeko joeragatik, baizik eta bere izate kapitalista, patriarkala eta kolonialagatik, bere funtsa edo izateko arrazoi historiko beragatik. Sare hauen arabera, tokian tokiko alternatiba praktikoa eraike behar dira eta haien arteko komunikazioa eta loturak sortu maila globalean, alternatiben eraikuntza hori da lehentasunezkoa jendeak izan daitezkeen bestelako aukerak ikusteko eta bizi izateko. Euren aldarrietan hurbiltasuna, gertutasuna eta desberdinen arteko berdintasuna defendatzen dituzte, globalizazio neoliberalak sortzen duen homogeneotasun baztertzalearen aurrean. Izan ere, merkatuen bertikalismo inposatua mozorrotu egiten da askatasuna, garapena, demokrazia eta progresoarean itxurakeriarekin.
- Mugimendu hauei buruz egin diren beste azterketa batzuek bereziki nabarmentzen dute loturarik ez dagoela mugimenduen diskurtsoa eta praktika batetik, eta eskuratutako lorpen politiko zehatzak bestetik, errealitate sozial eta politiko emantzipatuagoak eraikitzeari begira. Haien berezko erradikalasunean dagoen ahalmen askatzailea aitortzen dute, baina ez dute lortzen

inpaktu emantzipatzaile hori aktibatze behar den indar metaketa edota bitartekotza politikorik. Zailtasun eta ahulezia horiek, kasu honetan, diskurtsora egokitzen dira; hau da, eraldatze orokorrerako programarik ez ezartzea hautatzen da eta, ondorioz, ez da zehazten instituzionalizatutako botere politikoa nola kudeatu eta harekin zer egin. Estatua, botere zentralizatua, demokrazia ordezkatzailea eta oligopolioek eta multinazionalak kontrolatzen duten merkatua arbuatzen dira, baina oro har ez da egiturazko eredu alternatibo oso bat azaltzen.

Hala, mugimendu alterglobalizatzailearen inguruko gogoeta eta azterketetan, mugimenduaren arrazoiak, forma berrien eta xede orokorren inguruko ekarpenak nabarmentzen dira. Gizarte osoaren egiturazko prozesu emantzipatzaileen baldintzak eta ezaugarriak aztertzen dituzten ekarpenak baino. Zehaztapen hori ezinbestez egin beharra dago, emantzipazioa mugimenduaren eta bere erreferentziazko komunitateen barruan eman eta praktikatu daitekeelako, alternatibak eraikitzeo darabiltzan praktiken bitartez.

Hargatik, hainbat analistek ohartarazten dutenez, beharrezkoa da jendarte-mugimendu batzuek azken hamarkadetan beren baitan abiarazi dituzten prozesu askatzaileen baldintzak eta ezaugarri zehatzak sakon ezagutzea, eta haiei arreta egitea. Egile horietako gehienek diotenez, ezinbestez ikertu behar da nola ari diren eraikitzen prozesu horiek, baina beti ere berritutako oinarri epistemologiko eta teoriko-ideologikotatik abiarazi beharra dago.

Ildo horretan, Bringelek ohartarazten du garrantzizkoa dela azaleko irakurketarik ez egitea, jendarte-mugimenduen rol nagusia jokatzeko prozesuei buruz. Era berean, irekiera epistemologiko eta jakintzen arteko elkarrizketatik abiatuta egiten diren ahalegin akademikoek dagokienez ere, lehenbailehen konpondu behar da unibertsitatearen eta mugimenduen artean bi norabidetako harreman simetrikorik ez egoteak sorrarazitako muga. Izan ere, joera horiek...

“ahalegina egiten dute unibertsitateen eta ikerketa “zientifikoko” zentroek jakintzaren ekoizpenean duten monopolioa hausteko, gizarte-mugimenduekin eta gizarteko beste eragile batzuekin elkarrizketa emankorrak edukiz [...] Hala ere,

hainbat aldiz, tankera horretako proiektuak egiteko behar den bi noranzko joerak huts egiten du, eta, gainera, ekintza kolektiboaren azterketa bera bazter utzi ohi da. Eta, azkenean, oso azaleko irakurketak egiten dira mugimenduei eta haien praktikei buruz, hau da, “parakaidistaren lurreratzeak” egiten dira sakon aztertu ez diren eta azkenean justifikazio teoriko zabalagoak egiteko erabiliak izaten diren errealitate sozialen gainean (Bringel, 2011: 5).

Dena den, gero eta azterketa gehiagotan gertatzen da jendarte-mugimenduak “bestelako jakintzak” sorrarazten dituzten subjektutzat hartzen direla. Arazoa da baieztapen horiek, maiz, mugimenduen abiarazitako prozesuei buruzko azterketa azalekoak hartzen dituztela oinarritzat, eta, gainera, sakontzen ez dutenez, azterketa horiek ez dietela behar adina arretarik egiten ekintza kolektiboaren logikei, ez mugimenduak abiarazi dituen prozesuak eraikitze eta berreraikitze erabilitako moduari.

### 2.3. Latinoamerikan azaltzen ari den pentsamendu sozial kritikoa

Eremu akademikotik protesta sozialari eta jendarte-mugimenduen borrokei egin zaien azterketari egin dugun errepaso orokor honen azken geldialdian, hurbilpen ahalegina egingo dugu Latinoamerikan *azaltzen ari den pentsamendu kritikoa* zabaldu dituen hausnarketa eta eztabaidetara. Pentsamendu horrek sistema-munduaren periferian du sorrera, eta bertan dute sorrera, era berean, pentsamendu hori elikatzen duten botere hegemonikoen aurkako mobilizazio-prozesuak. Prozesu horietan, nekazari, indigena, feminista, ikasle, langile eta auzoetako sareek eta erakundeek betetzen dute rol nagusia, haiek eraikitzen dute praktikak gero eta modu zabalagoan zein konplexuagoan egituratzen dira maila ezberdinetan (tokian tokikoa, eskualdekoa, estatu mailan, kontinente mailan eta nazioarte mailan).

Izan ere, errealitate, borroka eta mugimendu horien gainean jakintza forma berriak sortzeko beharra ez da inspirazio akademiko baten ondorioa. Aitzitik, jendarte-mugimenduen berek sorrarazi dute, hein batean, berrikuntza kognitiboko beharizan hori. Haien prozesuen bidez azterketak gaintzen dituzte eta, praktikatik abiatuz, gero eta sakonago jartzen dute zalantzan

modernotasun kapitalista eta patriarkala -hori menpekotasuneko sistema anizkun gisa ulertuta, menpekotasun asko daudela aintzat hartuta: antropozentrismoa, kapitalismoa, patriarkatua, eurozentrismoa, kolonialitatea, etab.-, eta alternatibak eraikitzen dituzte horien aurrez aurre (nahiz eta zati batean lortu eta hainbat mugarekin). Modernotasuna era zabal eta konplexuagoan sakonki astintzen duten ikuspegi horietatik abiatuta, Latinoamerikan izan da non jendarte-mugimenduen planteamendu eta berrikuntza gehiago egin dituzten azken hamarkadetan (esate baterako, zapatismoa, Argentinako pikete-taldekak, MST-lurrik gabeko nekazarien mugimendua, indigenen erakundeak eta Boliviako emakume nekazariak). Are gehiago, sistema politiko instituzionalizatuaren esparrua ere baldintzatu dute eta, hala, funtsezkoak izan dira politikak eta gobernuak definitzean edo estatuaren eredu berriz aztertze prozesuetan (adibidez, Bolivian eta Ekuadorren).

Gure ibilbide analitikoari jarraiki, ez da erraza bereizketa zorrotz eta argi bat egitea mugimendu alterglobalizatzailearen eta Latinoamerikako mugimenduen artean, bigarren multzo honetako batzuk lehen multzoan ere sartuta daudelako, eta borroka eta prozesu asko partekatzen dituztelako. Hala ere, gure ustez, garrantzizkoa da atal berezi bat uztea Latinoamerikan azaleratzen diren mugimenduetarako, hartara, bereziki nabarmentzeko, alde batetik, Latinoamerikako jendarte-mugimenduen berezko ezaugarriak dituztela -bereziki haien sorreraren eta ikuspegi alternatiboaren ondorioz, baina baita sistema-mundu modernoaren ertzetan eratzearen ondorioz ere-, eta, beste aldetik, Latinoamerikako azterketek areago sakondu dutela emantzipazioaren auzian, alderdi kontzeptualean mugatuta geratu gabe praktikoagoak diren alderdi batzuk ere azalduz, ziurrena, eskualdeko jendarte-mugimenduen abiarazi dituzten prozesu-motengatik eta, orobat, haien pentsamendu akademikoa sistema-mundu modernoaren ertzetan eratzeagatik. Horiek horrela, gaur egun, Latinoamerika oso erreferente garrantzitsua da ekintza kolektiboa eta jendarte-mugimenduak aztertze esparruan, proposamen analitiko berriak eta interesgarriak eratzen eta azaleratzen ari baitira bertan, ez soilik mugimenduen kanpotik baizik eta mugimenduen baitatik ere.

Beharbada arrazoi historikoen ondorioz eta, era berean, menpekotasunetik askatzeko eta proposamenak

egiteko duten gaitasun kritikoaren ondorioz, gertuago sumatzen ditugu proposamen analitiko hauek, eta, hargatik, berezko gunea eskaini nahi izan diegu ibilbide honetan. Hala, ahalegina egin dugu Latinoamerikatik *azaleratzen ari den pentsamendu sozial kritikoa* deituko dugunaren ikuspegi batzuk labur azaltzeko. “Pentsamenduaren joera” plural eta askotariko den horrek zeregin zaila hartu du bere gain, besteak beste, emantzipazio soziala berriz aztertu nahi duelako modernotasun kapitalista kritikoki berrikusten eta desmitifikatzen duen ikuspegi batetik. Aldi berean, aldarri egiten du premiaz zabaldu behar dugula geure burua beste era bateko ikuskera eta ulermen batera, alegia, munduko errealitate askotarikoari soilik mendebaldekoa izango ez den mundu-ikuskerara eta ulermen batera.

Ikuspegi horretatik emantzipazio soziala modernotasun kapitalistak ezarri dituen era askotako menpekotasunekin hausteko prozesuen bitartez eraikitzen da. Logikoa denez, era askotako menpekotasun horien aurrean, emantzipazioak era askotakoa, multiplea, izan beharko du, bestela, ez baita izango<sup>11</sup>. Horren ondorioz, lehen esan dugunez, menpekotasunetik askatzeko prozesua amaierarik gabeko prozesutzat hartzen da, beti osagabe, etenik ez duen eta beti eraikitzen ari den prozesu bat bezala.

Jarraian, zehatz ikusiko dugu nola azaltzen duen menpekotasunetik askatzeko prozesuaren multidimentsionaltasun hori Ana Esther Ceceña, hau da, Latinoamerikan azaleratzen ari den pentsamendu sozial kritikoaren koordinatueta sar genezakeen egi-leetako batek. Egile horrek honela dio:

“...askapenaren edukiek arlo guztiak hartzen dituzte barne: mundua berriz interpretatzea, pentsamoldeak aldatzea, eta kultura berria eta materialtasun berria sortzea. Gero eta nabariagoa da menpekotasunetik askatzeko prozesuak, jabetza pribatua ezabatzeaz

eta bizitza materiala ekoizteko prozesuak berriz bereganatzeaz gain, batez ere, pentsamendua askatu behar duela, hartara, bizitza beste oinarri politiko eta epistemologiko batzuetatik ulertu ahal izateko. Borroken esperientzia horiek eta mendetasunetik askatzeko prozesuetan izan diren aurrerapenak era askotara atzeman daitezke, angelu askotatik eta era askotako ikuspegi teorikoak izanda” (Ceceña, 2008: 50).

Gure kasuan, testu honen helburua kontuan izanik, arreta berezia egingo diegu azterketa-eremu zehatz batetik datozen ahots kritikoei (baina ez soilik haiei), hain zuzen, ekintza kolektiboa eta jendarte-mugimenduen azterketa-eremuari. Arlo horretatik, azken urteetan hainbat analistek eta ikertzailek adierazi dutenez, eza-gutza eta jakintzari dagokienez badaude beste forma, praktika eta jarduerak, eta horiek behar-beharrezkoak dira gizarteko errealitatea -dituen indarkeria eta tentsio guztiak barne- ulertzeko eta baita errealitate horien kontra gizartetik bertatik sortutako erantzun jakin batzuk ulertzeko.

Hortaz, ikuspegi horretan kokatuz gero, erronka handiak eta konplexuak izango ditugu aurrez aurre, besteak beste, sistema-munduaren ertzetatik eta ertzekin ikastea, eta Boaventura Sousa Santosen “Hegoaldeko Epistemologia”<sup>12</sup> edo “Hegoaldetik ezagutzeko” proposamena gauzatzea (2006; 2010). Izan ere, orri batzuk lehenago esan dugunez, menpekotasunaren aurreko erresistentziako gune horietan (sistema-munduaren ertzetan) azaltzen dira agerien eta argien ez soilik indarrean dauden botere egiturak, baita jakintzaren egiturak eta logikak ere.

Jarraian, lehenik eta behin, zehatz ikusiko dugu nola ari diren berriz aztertzen jakintzaren ekoizpena, oro har, gizarte-zientziak eta, bereziki, Latinoamerikan *azaleratzen ari den pentsamendu sozial kritikoa*. Bigarrenik, labur aurkeztuko dugu jendarte-mugimenduei buruzko

<sup>11</sup> Egia esan, ez da batere kontu berria, aspaldi baita feminismoa (edo, hobeto esanda, feminismoak) adierazten hasi zirela eginkizun askatzaileek era berean jo behar dutela menperakuntza patriarkalaren molde guztien aurka. Hortaz, egunerokotasunean eta arlo pertsonalean/intimoan gertatzen dena egiturazko arloan eta arlo instituzionalean gertatzen dena bezain garrantzitsua da.

<sup>12</sup> Boaventura de Sousa Santosen Hegoaldeko Epistemologia mundua ulertzeko proposamen bat da (epistemikoa eta etiko-politikoak), eta askoz ere zabalagoa da mendebaldean dagoen munduaren ulermena baino. Proposamen horren bidez, Santosek adierazten digu premiaz jarri behar dugula ikusgarri ikusezin bihurtu dutena, pentsagarri pentsaezina bihurtu dutena, eta agerikoa egin ezkutatu egiten dutena. Horretarako, arrazoiketa geldoa, murrizta eta nagiak jotako itsukeriaren epistemologia utzi (arrazoiketa mota hori baita nagusi mendebaldeko modernotasunean), eta ikusmenaren epistemologiara igaro behar dugu (aniztasunera zabaltzen eta aintzat hartzen duen epistemologiara), hau da, Hegoaldeko Epistemologiara (kontzeptu honen eta haren ondorio ugarien azalpen egokia izateko, ikusi Santos, 2006 eta 2010).



proposamen analitikoek egin dugun hautaketa bat, ikuspegi epistemologiko berri horietatik abiatuta eginga.

### 2.3.1. Auzi epistemologikoa: jakintza botere-tresna gisa

Epistemologiaren arloak erreferentzia egiten dio jakintza ulertzeko, ekoizteko eta erabiltzeko moduari. Esan genezake, teoria sozial kritikoaren barruan, gero eta ahots gehiagok egiten dutela bat epistemologia berriz pentsatzeko ariketarekin. Ahotsen batuketa horrek oihu baten itxura hartzen du jakintzaren esparru batzuetan, adibidez, filosofian eta gizarte-zientzietan. Horrez gain, batzuetan, sakonki eta kritikoki berrikusten ditu zientzia modernoak jakintza ekoizteko izan dituen oinarriak; hau da, jakintza baliagarria eta fidagarria dela errealitatea neurtzen duen analisi enpiriko batean oinarrituta badago, ustez balore edo ideologiaren eraginik ez duten datuak eta adierazleak sortzen baditu, eta horiek aukera ematen badute, era objektibo eta neutro batean, izaera unibertsaleko mekanismoak eta legeak identifikatzeko. Oinarri horiekin kritikoak diren ahotsak maiz izan dira isilduak jakintza-arlo askotan, eta gaur egun ere hala jokatzen da (ekonomian, biologian, medikuntzan, etab.). Isilarazteko jarrera hori argi uler daiteke, jarraian azalduko dugun ikuspegi epistemologikoa kritikoa baita jakintza tekniko eta zientifikoaren ekoizpenean nagusi den paradigma positibista eta objetibista horrekin.

Hainbat aldiz jakintza tekniko-zientifikoa, zenbakiek, grafikoek, adierazleek eta diziplina bakoitzeko jergak ematen dioten objektibotasunezko itxura eztabaida ezin horretaz estalita, hala aurkezten zaigu: jakintza hori ekoitzi duten pertsonen balioekin, ideiekin, eta lan-ikuspegiekin batere zerikusirik edukiko ez balu bezala. Ildo horretan, zientzia modernoak jakintzaren ekoizpenari buruz darabilen ortodoxiak ahalmen pribilegiatua ematen dio bere buruari errealitatearen gaineko jakintza (objektiboa, neutroa, aditua...) lortzeko orduan, eta horrek "egiaren lilura" sortzen du; hau da, adituaren erabateko ziurtasuna zer gertatzen den eta zer komeni den egitea ebazteko orduan. Horrela, "egia" edo irizpide tekniko eztabaida ezin bat finkatzeko baliatzen da, eta boterezko tresna gisa erabiltzen da, debatake elite tekniko-zientifiko mugatu baten esku geratzen

baitira (normalean, gizonaekoak, mendebaldekoak eta klase sozial erosoetan kokatuak daudenak). Era horretan, zilegitasuna ukatzen zaie akademikoak ez diren beste jakintza eta ikuspuntu batzuei, horrenbestez, errealitateari buruzko diagnostikoetan eta eztabaidetan parte-hartze zabalagoa egoteko aukera ixten dute, eta, era berean, ustez teknokratikoa eta aditua den kudeaketa-mota bat indartuz, boterea demokratizatu ordez boterearen metaketa indartzen dute. Aditu eta objektibo bezala aurkezten den jakintza tekniko-zientifikoa nekez izango da gizartean eztabaidagai, eta, beraz, egia hegemoniko eta baztertzailer bat ezartzeko balia daiteke, botere-tresna arriskutsua izan daiteke azkenean.

Ikuspegi objetibista horrek, entzuteko eta ikaste-ko gaitasunak nabarmen urritzen dituen harrokeria sortzeaz gain, guztiz zuhurtzia eta arduragabea da, ustez begiralearekin edo ikertzailearekin zerikusirik ez duen ustezko errealitate/egia batean uzten baitu bere ondorioen eta eraginaren ardura. Zerbait jakintza objektibo gisa aurkeztea, eta hori sortu duten pertsonekin, euren ikuspuntuarekin eta sortzeko prozesuarekin zerikusirik ez duen errealitate/egian oinarritu nahi izatea, autoritatezko argudio bat inposatzeko ahalegina egitea da, prozedura zientifiko-akademikoari gizarteak atxikitzen dizkion prestigioaz eta zilegitasunaz baliatzea. Humberto Maturana biologo txiletarraren hitzetan, zerbait jakintza objektibo gisa aurkeztea, obeditzeko eta men egiteko eskaera bat egitea da, behartzeko argudio bat ematea, menperatzeko eta kontrolatzeko kulturaren oinarritutako argudio bat (Maturana, 2007).

Orain arte azaldu ditugun eta nagusi diren ikuspegi epistemologikoen aurrez aurre, gero eta sarriago irakurriko eta entzungo dugu abian dagoela honezkero batzuek "iraultza epistemologikoa" deitu dutena eta beste batzuek "biratze epistemologikoa" izendatu dutena. Gure ustez, denbora pixka bat igaro beharko da zehatzago jakiteko eztabaida epistemologiko horien nondik-norakoa eta ikerketajardueran duen ondorioa; orduan, eta bakarrik orduan, argitu ahal izango dugu zer den, biratze, aldatze edo iraultza epistemologikoa. Dena dela, eztabaida epistemologiko hauei eta azaleratzen ari diren "epistemologia alternatiboek" buruz, bi gauza azpiratu nahi ditugu: lehenik, metatze prozesu plurala dela, urte asko daramana bilakaeran; bigarrenik, errealitate bat baino gehiago, beharizan bat dela.

Sakon dezagun pixka bat gehiago bi ideia horietan eta, aldi berean, zehatz ditzagun “epistemologia alternatiboak” agertzean pizten ari diren eztabaidak.

Lehenik eta behin, metatze-prozesu plurala dela adieraztean, aditzera eman nahi dugu prozesua aberastuz joan dela, leku eta garai desberdinetatik iritsitako ekarpenekin eta, beharbada gaur egungo egoeraren konplexutasunaren ondorioz, litekeena dela une hauetan eztabaida mamitzen joatea eta indar berezia hartzea. Hermeneutikak eta Frankfurteko Eskolaren teoria kritikoak egindako kritikez gain, ikuspegi epistemologiko hegemonikoetan pitzadurak zabaltzen dituzten oraintsuko ekarpenen artean, bereziki nabarmendu nahi ditugu “epistemologia feministek”<sup>13</sup> egin dituztenak; erreakzio gisa sortzen direnak paradigma zientifiko positibistaren<sup>14</sup> aurrean, modernotasun kapitalista eta patriarkalean eratzen den paradigma hegemonikoa. Gure ustez, epistemologia horien ekarpenak bereziki aipagarriak dira, ikusezinak egiteko egon den joeragatik eta garrantzia izan dutelako eztabaida epistemologikoa zabaldu zedin (ez bakarrik gizarte-zientzietan).

“Jakintza kokatua”ren kontzeptua (Haraway, 1995) epistemologia feministak egin duen ekarpenik garrantzitsuenetako bat da. Kontzeptu hori ez dago soilik sexu-generoko sisteman dauden menpekotasunei, askoz harantzago baitoa. Jakintzaren izaera kokatuak bi auzi argitzen dizkigu behintzat: alde batetik, bistan dago subjektu gisa eragiten eta kokatzen gaituzten gizarte-baldintzatzaile askotarikoek (klase soziala, etniak, sexu-generoak, ideologiak, etab.) baldintzatu egiten dutela guk ekoizten dugun jakintza, eta, hartara, “dakigunak eta dakigun hori jakiteko moduak zerikusi zuzena dutela subjektu jakilearen egoerarekin eta ikuspegiarekin” (Nicolás, 2009: 38); eta, bestetik, aditzera ematen digu errealitateaz egi-

ten diren irakurketak eta irudikapenak beti direla partzialak eta era horretan ulertu behar direla. Hala, bada, esplizituki azaltzen eta onartzen da inork ez duela ahalmen pribilegiatua errealitatearen berri emateko era objektibo eta erabatekoan.

Jakintza ez da jasotzen behatzaileengandik erabat kanpo eta bereiz dagoen errealitate batetik; aitzitik, jakintza ekoitzi eta eraikitzen da; eta jakintza ekoizteko jarduera hori testuinguru soziokultural eta historiko jakin batean kokaturik dauden pertsonen esku dago. Hargatik, jakintza beti da jakintza kokatua. Zientzia objetibistak, aldiz, talaia zientifiko-tekniko batetik behatzen du dena (begirada panoptikotik) eta, ustez, ez da gizarte-eta kultura-aldeak inon kokatzen. Gizartean kokatuta dagoen subjektu zehatz baten begirada ezkututzen eta mozarrotzen du; normalean, gizona, mendebaldekoa, zuria, heterosexuala, aski diruduna (klase ertain/altukoa) eta nagusitasuna duen talde etno-linguistikoko kidea den subjektu baten begirada:

“...subjektu hori kokapen dominatzaile batean dago eta modu zehatz batzuk ditu gauzak kontrolatzeko eta ordenatzeko (gorputzak, biztanleriak, errealitate naturalak, sozialak eta makinikoak...). Begirada-mota horren ustezko neutraltasunak, gainera, burua/gorputza erabat bereizten dituen paradigma baten arabera jokutzen du, eta, bertan, buruak menderatu behar-lituzke gorputzaren eta haren afektuen «desbi-deratzeak» -beti femeninotasunari lotuta azaltzen baitira-. Subjektu jakile hori leherrarazteko ahalegina eginez, baina kontakizun erlatibistarik egin gabe, epistemologia feministak proposatzen du jakintzako subjektu *haragiztatuta* eta gizarteko egitura zehatz batean *txertatuta* dagoena (hala, beraz, subjektu sexuduna, arrazaduna, etab.), eta subjektu horrek ekoizten dituen *jakintzak kokatuta* daudela, baina, hala ere, ez dutela

<sup>13</sup> Badago azterketa epistemologiko feministen sailkapen bat Sandra Harding-ek egindakoa 1986ean (Harding, 1996: 23-27). Harding-ek hiru kategoria bereizten ditu, honela deitu zituenak: enpirizismo feminista, ikuspuntu feminista eta postmodernotasun feminista. Oro har, egile feminista gehienek sailkapen edo tipologia hori onartzen dute, baina, gaur egun, hiru mota horiek bereizten dituzten mugak gero eta lausoagoak dira, eta badira hiru motek batera dituzten bi auzi: aniztasuna babestea eta teoria totalizatzaileak arbuiatzea (Nicolás, 2009). Testu honetan, modu generikoan aipatuko dugu epistemologia feminista, guztiei dagozkien auziak aztertuko baititugu, hain zuzen, “jakintza kokatua” eta objektibotasunaren ideia problematizatzea.

<sup>14</sup> Epistemologia feministak “aztertzen du nola eragiten duen eta nola eragin beharko lukeen sexu-generoak jakintzari buruz ditugun ikuspegietan, eta ikertzeko zein jakintza justifikatzeko ditugun metodoetan [...]. Hausnarketa hori egitean, positibismoarekin hausten du, beste pentsamendu kritiko batzuek bezala” (Harding, 1991) (Nicolás, 2009: 26).



objektibotasunik galtzen. Alderantziz, Donna Harawayk dioenez, «soilik ikuspegi partzialaren bidez lortuko dugu begirada objektiboa» eta, ikuspegi partzial hori lortzeko, lurralde batean *kokatze-ko* eta *implikatzeko politika* eduki behar da, hitz egiten, ekiten eta ikertzen dugu lurralde zehatz horretatik. Nagusi den begirada zientifikoaren kritika horrekin zuzenean loturik, epistemologia feministak bereziki nabarmentzen ditu ikerketa guztietan jokoan dauden botere-harremanak eta, beraz, defendatzen du erreflexibitatean eta gardentasun- zein demokrazia-irizpideetan oinarritutako ikerketaren antolakuntza soziala behar dela (Malo de Molina, 2004).

Horrekin batera, epistemologia feministak beste ekarpen garrantzitsu bat egin du: oso era egokian adierazi du zientzia beti dela zerbaitengatik, zerbaitetarako eta norbaitentzako; eta, hala, agerian utzi du zientzia modernoak babesten duen objektibotasun positibistaren falazia (ustez, neutrala, autonomoa eta inpartziala), idatz-zati honen hasieran aipatu duguna. Pentsa genezake falazia hori iraupen luzeko akats epistemologiko bat dela, baina historiak eta pentsamendu kritikoko hainbat joerek (feminismoak, post-estrukturalismoak, post-modernismoak eta post-kolonialismoak) egin dituzten botere eta menpekotasunari buruzko azterketek argi frogatu dute estrategia ideologiko bat dela, talde hegemonikoek euren nagusitasunari eta botereari eusteko darabiltena (Nicolás, 2009), eta ezinbestekoa dela menpekotasunetik askatzeko prozesuek hori agertzea eta kritikoki berrikustea.

Bigarrenik, eztabaida epistemologikoa eta epistemologia alternatiboen premia errealitate bat baino beharizan bat dela esaten dugunean, Boaventura de Sousa Santosi egiten diogu aipamen, zera planteatzen baitu:

“Ez dugu alternatibarik behar, alternatiben gaineko pentsamendu alternatiboa behar dugu. Gaur egun alternatiba asko baitaude, baina ez dira halakotzat hartzen; bazterrean uzten dira, ez-ikusiarera egiten

zaie, alde batera utzi eta arbuiatzen dira, eta, azkenean, alferrik galtzen uzten dira” (Santos, 2008).

Hau da, lehendabiziko konturatu behar gara honezke-ro existitzen diren eta eskura ditugun alternatibeei buruz jakintza aldetik dagoen hutsunea, eta hutsune hori konpontzeko dauden zailtasunak. Izan ere, era horretan, bi auzi hauetaz ohartuko gara: alde bate-tik, Ceceña (2008) dioen bezala, jakintzen gunea gatazka-gunea dela<sup>15</sup>, eta gatazka horiek prozesu askatzailearen barruan sartuta daudela; eta, bestetik, Hoetmer-i jarraiki, jakintza askatzailearen eraikuntza engaiamenduz ikertzen dutenen eginkizun nagusia hauxe dela:

“...(berriz) ebaluatu behar dira gizartea aztertze-ko, azaltze-ko, kritikatzeko eta aldatze-ko erabiltzen ditugun kontzeptu analitikoak, aldaketarako teoriak eta metodologiak. Hau da, analisiak, interpretazioak eta teorizazioak behar ditugu, gaur egungo jendarte-mugimenduen proposamen politikoetan eta ekintza, kontzeptu eta imajinarioetan azaltzen diren gizartea eraldatzeko bideei buruz” (Hoetmer, 2009: 13).

Hala, hainbat egileren arabera, beharrezkoa eta premiazkoa da orain dela hamarkada batzuetatik hona arrastaka daramatzagun hutsune eta traba horiek gaintzea. Ez da aski horietaz jakitun izatea eta, beraz, ezinbestekoa da bideak abian jartzea arazo horiek gaintzeko. Traba horietako bat are nabariago agertzen da, Latinoamerikako jendarte-mugimendu garaikideak interpretatzeko erronkari eusten diogunean, Bringelek dioen bezala:

“Gaizki konpondutako sorrerako arazoak aurkitzen ditugu berriz ere: 1960 eta 1970eko hamarkadetan azaldutako “gizarte-mugimenduen soziologiak” baliatzen dituen ideiak, kategoriak eta kontzeptuak, batez ere, Europako eta Iparamerikako esperientzietan oinarrituta zeuden (bereziki, 1968ko ikasleen borroketan, eta Europako langileen mugimenduaren inflexioetan

<sup>15</sup> “Jakintzen eta ezagutzen gunea erresistentzian eratutako borroka-gune bat da, eta subersioak eta bilaketaz elikatzen da. Era guztietako kolonizazioen aurreko erresistentzia-prozesuan eratzen da, bereziki, munduari buruzko ikuspegi auto-sorrera galarazi nahi duen horietan. Jakintzen gunea norberaren sentipenen eta bizipenen lekua da, sortu ahala aldatzen den tradizioaz lagunduta. Jakintzen erdigunean kokatzea, herrien sentipenak eta borrokak euren sinismen sakonekin duten lotura identifikatuz, zera da: herrien kosmogonia eta estrategien lurtean kokatzea, prozesu guztiak korapilatzen eta zabaltzen diren korapiloan. Eta korapilo horrexetan sumatu nahi ditugu subjektuen mugimenduak eta haien fluxu eratzaileak-deseratzaileak” (Ceceña, 2008: 51).

eta Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko borroketan). Hortaz, ez zituzten aintzat hartzen Afrikatik zabaldutako kolonialismoaren aurkako borroak, ez Latinoamerikako inperialismoaren aurkako borroak [...] Azterlan aitzindari askok -Latinoamerikan (Gohn, 1997) eta Afrikan (Mandani eta Wamba-dia-Wamba, 1995)- hainbat eratara kritikatu zuten azterketa horien joera eurozentrikoa -edo, hobeto esanda, “mendebalzentrikoa”-. Horrez gain, “paradigma propioa” aurkitzeko beharra azpimarratu zuten, leku eta eskualde bakoitzeko esperientziak eta berezitasunak oinarritzat hartuta eraikiko litzatekeen paradigma” (Bringel, 2011: 3).

Hortaz, epistemologia feministak egindako ahalegin ez ekarpenez gain, oraintsuagokoak diren beste ekarpen batzuk ditugu, Latinoamerikako izaera nabarmena duten ekarpenak -lehen adierazitako arrazoiak direla eta-. Hain zuzen, era askotako ekimen eta banakako zein taldeko ahots kritiko asko -akademikoak eta akademikoak ez direnak- ditugu hizpide, biltzeko eta solasean jartzeko ahalegin handia egiten ari diren ekimenak. Ekarpene eta ahalegin horiek elkarri lotuta daude, erronka bateratu batzuk onartu dituztelako denek (bestetik ez bada, inplizituki). Laburbilduz, erronka hauek direla esan genezake: zientzia modernoaren ohiko dikotomiak gainditzea (subjektua-objektua, teoria-praktika, natura-kultura, norbanakoa-taldea, egitura-ekintza, etab.), epistemologia positibistaren nagusitasuna arbuiatzea (hor, jakintza eta boterearen arteko harremana guztiz mozturrotuta gertatzen baita), eta unibertsaltasun abstraktuak kritikatzeko.

Ildo horretan, azken urteetan eragin eta garrantzi gehien izan dituen taldeko ekimen intelektualetako bat hauxe da: *Modernotasuna/kolonialitatea programa*<sup>16</sup> eta bere ikuspegi edo teoria dekoloniala<sup>17</sup> sortzea eta finkatzea. Besteak beste, eta egile horiek egiten duten proposamena

gehiegi laburbilduz, talde horrek aditzera ematen du eskualde kolonizatuak hiru motatako kolonialitatearen menpe egon direla, kolonialismoa bukatu ondoren: boterearen kolonialitatea (arloan ekonomikoari eta politikoari dagokiona), izatearen kolonialitatea (subjektibotasunei eta sexualitateei dagokiena), eta jakintzaren kolonialitatea (arloan epistemologiko, filosofiko eta zientifikoari dagokiena). Boaventura de Sousa Santos arabera, modernotasun kapitalistak sorrerazko indarkeria du bere baitan, alegia, bere izaera koloniala eta inperiala, horren aztarna ez baita oraindik ezkutatu:

“Kolonialismo politikoa bukatu zen baina kolonialismo soziala eta kulturala ez [...]; ezin da menpekotasuna eta desberdintasuna ulertu, gaur egun arloan askotan gizarte kolonialak gairela ulertu gabe” (Santos, 2006a: 50).

Historikoki Europan ekoitzi den jakintza kritikoak aski ondo islatzen du Sousak aurreko lerroetan adierazi duena; izan ere, oso monokulturala izan da, hau da, oso mendebaldekoa eta, beraz, modernotasunaren ikuspegi teoriko-kontzeptualei lotuta egon da. Gaur egun arrazionaltasun zabalago bat behar dugu, gure garaiko kulturartekotasunarekin bat datorrena, eta gaur egungo gertakarien konplexutasuna ulertzeko gai izango dena. Arrazionaltasun horrek onartu behar du, orain arte ezkutatuta eta isilarazita egon diren esperientzietatik abiatuta, beste arrazionaltasun batzuk badaudela; eta haiekin elkarrizketa abiatu, elkarlanean oinarritutako logika batetik -eta ez mendekotasunean oinarritutako logika batetik-, jakintza-mota askatzaile bat eraiki ahal izateko. *Modernotasuna/kolonialitatea programan* parte hartzen duten egileetako bat den Arturo Escobar-en hitzetan, ikerketako programa horrek duen indar orientatzaile nagusia da barne hartzen eta balioztatzen duela bigarren mailan kokatuta dagoen eta zapalduta dauden taldeek duten jakintza.

<sup>16</sup> Pentsamendu kritikoko programa honetan, intelektual asko daude, diziplina (filosofia, soziologia, antropologia, semiologia, ekonomia) eta alderdi askotakoak (AEB, Asia, Afrika, Latinoamerika eta, neurri txikiagoan, Europa). Talde honetan, egile hauek hartzen dute parte, besteak beste: Aníbal Quijano, Walter Dignolo, Boaventura de Sousa Santos, Arturo Escobar, Catherine Wals, Ana Esther Ceceña, Enrique Dussel, etab.

<sup>17</sup> Eraikitzen ari den ikuspegi dekoloniala modernotasun kapitalistaren menperakuntzako sistema anizkunak ezarritako botere/menperakuntzako harremanak ulertzeko eta gainditzeko proposamen epistemiko, teoriko eta metodologiko bat da. Gero eta egile gehiagok hartzen dute ikuspegi hori, gune kritiko egokia baita errealitate garaikidea eta gaur egun airean dauden Gizarte eta Giza Zientzien oraina aztertzeko. Landerrek bildutako “Colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales” liburuan (2000), informazio gehiago eskuratu daiteke Modernotasuna/kolonialitatea taldearen sorrerari eta lehenbiziko urratsei buruz eta, orobat, ikuspegi dekolonialari buruz.

“Nolabait esaten badugu herri-hezkuntza, menpekotasunaren teoria, askapenerako teologia eta parte hartzeko ikerketa-ekintza izan direla Latinoamerikak XX. mendeko pentsamendu kritikoari egin dizkion ekarpenik berezienak -berezitasun horri ezarri ahal zaizkion baldintza guztiekin-, orduan, esan dezakegu Modernotasuna/kolonialitatea (M/K) ikerketa-programa tradizio horren emaitza dela. Hala ere, desberdintasun nabarmenak daude. Walter Mignolok argudiatu duenez, (M/K) programa «bestelako paradigma» gisa hartu behar da. «Latinoamerikatik» sortutako paradigma berria izan beharrean -hala nola, menpekotasunaren teoria-, MK programa ez da paradigmaren edo epistemen historia lineal batean sartzen. Hala ulertuz gero, pentsamendu modernoaren historian txertatuko genuke. Alderantziz; MK programa pentsamenduaren modu desberdin bat dela ulertu behar dugu, kontakizun modernista handien -kristautasun, liberalismo eta marxismoaren- kontrakarrean doan modua; programak bere era berezia bilatu behar du, pentsamenduaren sistemen ertzeetatik, gauzak sakonki berrikusteko eta astintzeko eurozentrikoak ez diren pentsamoldeak sortzeari begira” (Escobar, 2003: 53-54).

Gure ustez, Modernotasuna/kolonialitatea taldeaz gain, bereziki nabarmendu behar dira beste ekimen batzuk (hala nola, *Consortio de investigación sobre movimientos sociales y transformaciones político culturales del S.XXX*<sup>18</sup>); Caracasko Nazioarteko Zentroan aukera askatzaile

berriei buruz egindako eztabaida estrategikoak, edota zenbait tailer (*Talleres internacionales sobre paradigmas emancipatorios en América Latina*)<sup>19</sup>.

Azken batean, ikuspegi epistemologiko horietatik abiatuta (eta hurbil sentitzen gara haiengandik), nabaria da zilegitasuna eta baliagarria den jakintza ez dela bakarrik akademian eraikitzen, eta, beraz, ikuspegi horietatik abiatuta ikerlan bat egiteko, hauxe behar dela: norberak dituen baldintza soziokulturaleri buruzko eta nahi ez dituen joera horiei buruzko auto-hausnarketa etengabe egitea; gure ikuspegi eta hurbilpenaren izaera osagabea eta mugatua onartzea, eta jarrera umila, apala eta zuhurrarekin aniztasun kognitibo handiago batekiko sentiberak izatea; benetako elkarrizketa eta irekiera gauzatzea arlo akademikoetan eta arlo akademikoetatik kanpo sortzen diren jakintzekin (mendebaldekoak ez diren herri-kulturak, jendarte-mugimenduak, kosmologiak eta filosofiak, etab.); eta, azkenik, zergaitik eta zertarako ikasten eta ikertzen dugun agerikoa egitea. Era horretan, gure gogoetak, ondorioak eta proposamenak ez dira gertatzen denaren “egia” izango, baizik eta guk proposatutako ikuspegitik begiratzeko eta esku hartzeko gonbidapen bat -egon daitezkeen beste batzuen artean-.

Horiek dira, bada, azken urteetan zabaltzen joan diren debate eta ekimenetako batzuk, jakintza ekoizteko forma berriak agertzean; modernotasun kapitalistak eta bere jakintza-moldeek finkatu dituzten era askotako menpekotasunak sakonki astintzen dituzten ekimenak.

<sup>18</sup> Sonia E, Álvarezek azaltzen duenez, partzuergo hori “2008ko apirilaren amaieran zehaztu zen, Massachusetts-Amhersteko Unibertsitatean (UMass) egin zen eta «Interrogating the Civil Society Agenda: Social Movements, Civic Participation and Democratic Innovation» izenburua izan zuen nazioarteko biltzar batean. UMass-etik aparte, instituzio sortzaileek hainbat ikerketa-zentro eta programa hartzen dituzte barne: Campinasko Unibertsitate Estatala eta Minas Geraisiko Unibertsitate Federala Brasilen, Limako San Marcos Unibertsitate Nazionalako Demokrazia eta Eraldaketa Globala izeneko programa Perun, San Martingo Unibertsitate Orokorra Argentinan, Universidad del Valle Kolonbian, Coimbrako Unibertsitateko Gizarte Azterketen Zentroa Portugalen, eta Ipar Karolinako Chapel Hill Unibertsitatea, Brown University eta Harvard University Estatu Batuetan. Horrez gain, hainbat instituziotako ikertzaileek hartzen dute parte, hala instituzio akademikoetakoek nola jendarte-mugimenduetakoek eta gizarte zibilekoek. Partzuergoak lankidetzazko ikerketak eta mota askotako trukeak bultzatu nahi ditu herrialde askotako ikertzaileen eta graduatu ondoko ikasleen artean: AEB, Puerto Rico, Argentina, Brasil, Kolonbia, Txile, Peru, Venezuela, Ingalaterra eta Portugal, besteak beste. Gure ikuspegia Ameriketara dago ardatzuta, baina ikuspegi konparatiboa dugu” (Álvarez, 2009: 28).

<sup>19</sup> 1995. urtetik hona, Habanako Filosofia Institutuko (Zientzia, Teknologia eta Ingurumen Ministerioari dagokion instituzio akademiko kubatarreko) Grupo América Latina: Filosofía Social y Axiología (GALFISA) taldeak deialdi hau egiten du bi urtez behin: *Latinoamerikako Paradigma Askatzaileei buruzko Nazioarteko Tailerrak*. Tailer horietan era askotako erakundeek eta sareek hartzen dute parte (besteak beste, Vía Campesina/Coordinadora Latinoamericana de Organizaciones del Campo - CLOC, Emakumeen Mundu Martxa, Red Latinoamericana de Mujeres Transformando la Economía - REMTE, Movimiento Trabajadores sin Tierra - MST, La Otra Campaña - EZLN, Confederación de las Nacionalidades Indígenas del Ecuador - CONAIE), akademiko, ikertzaile, gizarteko ekintzaile, herri-hezitzaile eta jakintzen arteko elkarrizketa (Sousa Santosen ustez, jakintzen ekologia) piztu nahi duten pertsona guztiekin batera, Latinoamerikako gizarteko eta giza askapenerako dauden arazoak aztertzeko.

### 2.3.2. Jendarte-mugimenduei buruzko proposamenak ikuspegi epistemologiko berrietatik abiatuta

Testu honen helburuari begira, aipatu ditugun egileen proposamenetan dauden alderdirik garrantzitsuenak hauexek dira: euren begirada, kontzienteki kokatuta dagoen begirada ez-neutrala; herri-mugimenduen prozesu askatzaileentzako baliagarri izango den jakintza sortzeko konpromisoa; emantzipazioaren eta justizia sozialaren aldeko borroka ulertzeko moduak berritzen dituzten osagaiak eta joerak zehaztea. Mugimenduak, beren aniztasunarekin eta praktikekin, politika ulertzeko modua berrasmatzen ari dira menpekotasun-harremanetatik askatzeko praktika gisa. Hainbat egilek, Hegoamerikako herri-mugimenduen errealitateari erreparatuta eta jendea mobilizatzen, eragin politiko lortzeko eta sormenezko gaitasun propositiboa aktibatzen orduan gaitasun gehien erakutsi dituzten mugimenduei begira, honako alderdi berri-tzaile hauek nabarmendu dituzte emantzipazioaren aldeko borroka ezaugarritzeari dagokionez:

1) Borroken oinarria, klase sozialaren arabera oinarri estrukturala eta funtzionala izatetik, identitate kultura eta lurralde-nortasunaren arabera oinarria iragatea (García Linera, 2010: 14). Beste mintzaira eta praktika politiko batzuek gaintu egiten dute aurrez klase sozialaren arabera murriztapena eta murriztapen ekonomizista egiteko zegoen joera. Hau da, berezko kultura- eta lurralde-nortasunen baieztapenetik abiatuta, borroka eta askapenerako arlo gisa gizarte-bizitzako alderdien aniztasuna eta bertan izaten diren era askotako menpekotasunak finkatzen dira. Hor-taz, ideia honek hartzen du indarra: “aldaketako subjektu historikoa” ez dela klase sozial edo ekoizpen-sektore jakin bat, baizik eta askotarikoa eta anitza dela, eta egituratzekotan ekintza bate-ratuan egituratuko dela.

Mendetasunetik askatzeko prozesua aldi berean da pertsonala eta kolektiboa, egunerokoa eta egiturazkoa; eta harreman sare, gizarte antolaketa eta bizitza erreproduzitzeko sare askorekin du zerikusia, ez soilik ekoizpenaren arloarekin edo politika publiko eta estatuarekin.

2) Berdintasuna lortzeko eta mendetasunetik askatzeko borroka, aldi berean, nortasun desberdinen

onespena lortzeko borroka bat da, hau da, historikoki beheratua egon den norberaren nortasuna baiezteko, eta gainerako nortasunak dauden berdintasun-maila berean jartzeko borroka. Aukera-berdintasuna eta nortasun desberdinekiko onespena lortzeko borroka prozesu askatzaileen eskutik doa, eta horrek aldaketa nabarmena dakar mendebaldeko ezkerren teoria politikoaren tradizio batekiko. Boaventura de Sousa Santosek gogoratzen digunez, “teoria politikoari erreparatzen badiogu -batez ere mendebaldeko ezkerrekoen teoriari-, berehala ohartuko gara teoria hori beti izan dela berdintasuna lortzeko borroka bat, eta ez desberdintasunekiko onespena lortzeko borroka bat” (Santos, 2008: 147).

3) Borroka lurraldearekin elkarlotzea. Lurra eta ingurumena babesteaz gain (kutsadurak eragindako hondamen urbanizatzaileari edota bizitzeko ezinbestekoak diren gaiak -ura, tokiko basoa, zura, gasa, haziak...- ahitzeari aurre eginez), lurraldearen aldarria egiten da, zentzu politiko batez, talde oso baten bizitza kulturalaren sustraiak gune horretan errotzen baitira. Lurra eta lurraldea babesteko borroka horretan, instituzioen ekintza politikoarekiko mesfidantza sumatzen da, eta oldarka egindako ekintza zuzenen alde jotzen da, hau da, gizarte osora zuzendutako ekintza politiko ez-instituzionalaren alde.

Era berean, gatazkek nazioarte mailako jatorria eta ondorioak dituzten neurrian, herri-erakundeen jardueran gero eta garrantzitsuagoa da sare globaletan egotea eta nazioz gaintu egituratzea (feministak, nekazariak, ekologistak, indigenak...). Horren ondorioz, gero eta harreman gehiago dago borroka sektorial desberdinetan aritzen diren taldeen artean, horrek dakarren aurrerapausoekin ikuspegi kritiko bateratuak identifikatzeko orduan.

4) Eremu politikoa zabaltzea autonomia eta desmerkantilizazioa eraikiz. Politika askatzaileak molde prefiguratuak edo aitzinamendukoak hartzen ditu, eta, hargatik, aurre egiten dio bizitza kolektiboaren esparru desberdinak (hezkuntza, ekoizpena eta merkaturatzea, osasuna, komunitatearen antolakuntza...) antolatzeko forma propioak eta autonomoak sortzeko erronkari, eta, orobat, hori egitean, ez du logika lehiakorrik eta metatzailerik

baliatu nahi, lankidetzan eta elkarlanean oinarritutako logikak baizik. Era horretan, gizartea eraldatzeak eta gauzak aldatzeak esan nahi du gauzak beste era batera eraiki behar direla, behetik hasita. Kontua ez da soilik “boterea eskuratzea”, baizik eta “gizarteko botere-harremanak eraldatzea”; eta hori ez da dekretu bidez lortzen. Hargatik, halako mesfidantza edo tentsioz beteriko tarte bat uzten da estatuarekiko, eta horrek ere badu zeriakusia sistema politikoaren ordezgarritasunaren krisiarekin. Bultzada nabaria eman die horrek zenbait eztabaidari: estatu eta gizartearen arteko, demokrazia ordezkatzailerik eta demokrazia zuzenaren arteko, eta estatuarena den espazio publiko eta estatuarena ez den estatu publikoaren arteko harremanari buruzko eztabaidei.

Hortaz, badirudi nabaria dela, aukera utopikoak lortzeko eta alternatibak eraikitzeko, auto-antolakuntza, autonomia eta komunitatearen oinarriak behar direla. Oinarri horiek sendoagoak dirudite energia askatzaileak katalizatzeke orduan. Utopia eraikitzeke ipar ideologikotzat hartzen den komunitatearen autonomia eta autogestioari buruzko baieztapen hori, tentsioan dago autonomia “babesteko balio” bilakatzen duten atzeranzko mugimendu diferentzialistekin (Svampa 2011: 7).

- 5) Demokrazia berriz asmatu behar da ekintza politikoko molde eta estiloak birplanteatuz eta, orobat, antolatzeke formak eta kulturak berriz aztertuz (beste etika militante bat). Gogortasuna, heroikotasuna eta egia ideologikoa oinarritzat hartzen dituen borrokaren mistika eta imajinarioa bigunduz doa; eta bestelako etika bat indartuz: elkarren zaintza, barneko aniztasunaren onarpena, eta jarduera sinbolikoak eta kulturalak eginez kide izateke sentipenaren eta konplizidatearen eraikuntza bultzatzen dituen etika. Barneko demokraziaren eta ekintzaileen arteko lotura politiko horizontalen zentralitatea indartzen da; barneko esparrua lehentasunezko gunea da, ez dago arerio politikoekin indar-korrelazioa hobetzeko dauden estrategien mende. Areago, indartu egiten da lortu nahi diren edo babesten diren printzipioen kontrako efektuak ez sortzeke ideia; adibidez, botere kontzentrazioerik ez sortzeke mugimenduaren barneko funtzionamenduan (Adamsky, 2009: 345). Hargatik, garrantzia handia

ematen zaio ekintzaileen prestakuntza politikoari, horren bitartez, eguneroko subjektibotasunak eta praktika askatzaileak eraiki ahal izango baitituzte. Mugimenduak bere burua eraikitzen du eta bere jakintzak egituratzen ditu bere prozesu askatzaileak elikatzeke. Beste jakintza eta jakintza-molde batzuei balioa ematen zaien bitartean, berriz zabaltzen da jakintza zientifikoaren eta ikerketa akademikoaren eginkizunari buruzko eztabaida: zeren eta noren zerbitzuan daude?

Laburbilduz, mugimenduen praktiketan eta justizia soziala lortzeke borroketan nolabaiteke berrikuntza dakarten osagai eta joerak ondoko hauek dira: mugimendua sortzen eta indartzen da historikoki beharatu eta menperatu izan den bere identitate propioa baieztatuz; identitate edo nortasun hori askotan lurraren eta lurraldearen aldeke borrokari lotuta azaltzen da, komunitatearen bizitza eta biziraupenerako kulturaren sustriak lur horretan errotuta baitaude; mugimenduak mundua ulertzeke eta munduan egoteke bere autonomia finkatuz molde propioak sortzen ditu bere bizitza antolatzeke, molde horiek lortu nahi den askapenerako aukerak aurrirudikatzen eta aurreratzen laguntzen baitituzte. Horrez gain, beste etika politiko eta elkarrekin erlazionatzeke eta antolatzeke beste modu batzuk oinarritzat hartuta, askapena eraikitzen du bere baitan eta dagozkion komunitate edo guneetan.



### 3. Gure proposamen analitikoa

Jendarte-mugimenduak askapen subjektu gisa hausnartzeko egiten ari garen planteamendu zehatza agertu aurretik, argitu nahi dugu hausnarketa hori non kokatzen den, eta zergatik eta zertarako ari garen eraikitzen.

Lan hau pentsamendu eta ikerketako talde-prozesu zabalago baten barruan sartuta dago, hain zuzen, *Jendarte-mugimendu emantzipatzailei lotutako Nazioarteko lankidetzarako agenda alternatiboa* eraikitzeko xedea duen proiektua<sup>20</sup>. Zehazki, lan koaderno honetan bildu nahi dira ikerketa prozesu honetako lan-taldeetako batean eztabaidatutako gaiak. Eztabaida horien bidez, jendarte-mugimenduak menpekotasunetik askatzeko subjektu estrategiko gisa irudikatu eta justifikatu ditugu baina, horrez gain, ahalmen emantzipatzaile horiek sendotzen dituzten ezaugarri zehatz batzuk identifikatu ditugu.

Era horretan, dokumentu honek prozesu osoaren kokapen teorikoa egin nahi du, oinarri eta premisa izan dadin, baina malgutasun eta porositate handia izan nahi du ikerketa-prozesuan agertzen den guztia-

rekiko. Gogora ekar dezagun, aurreko orrialdeetan esan dugunez, hala gure hausnarketak nola puntu honetan azalduko dugun proposamen analitikoa gonbidapen gisa irakurri behar direla (ez bakarra eta, beraz, ziurtasunik eta ikuspegi absoluturik izan gabe), jendarte-mugimenduek eraikitako errealitatei begiratzeko, errealitate horiek interpretatzeko eta haiekiko jarrera bat hartzeko gonbit gisa.

Hala, bada, atal honetan, zehatz argitu nahi ditugu, alde batetik, abian dagoen ikerketaren lehen aldi hau gidatu duten jendarte-mugimenduei buruzko abiaburuko ikuspegiak eta, bestetik, hurbilpen epistemologikoa egin nahi dugu haiengana gerturatzeko, jendarte-mugimenduak oro har eta bereziki aztertu beharreko kasuak<sup>21</sup> ulertzeko eta ikertzeko, proposamen analitiko hau zein angelutatik eta ikuspegitatik eraikitzen dugun azaltzeko.

Testuan barrena adierazi dugun moduan, jendarte-mugimenduei buruz izan ditugun abiaburuko ikuspegiak testuinguru jakin batean kokatzen dira, hain zuzen,

<sup>20</sup> Ezinbestez azpimarratu behar dugu ikerketako prozesu zabalagoaren xedea ez dela *agenda alternatiboa* sortzea, baizik eta *agenda alternatiboa* bat eraikitzea, gizarte-mugimenduei lotuta. Hala, bada, ez dira jendarte-mugimenduak gaitasun askatzailea duten bakarrak, eta, era berean, ez da jendarte-mugimenduen eskuetatik igarotzen den hori, dagoen lankidetzaz askatzaile bakarra.

<sup>21</sup> Ikerketa-prozesuko lehen aldian, bi kasu aztertu dira, garrantzi handiko bi jendarte-mugimendurekin aztertu ere: bat Emakumeen Mundu Martxarekin, eta bestea La Vía Campesinarekin (LVC, Nekazarien Bidea). Bi kasuetan oinarri epistemologiko horiek zehaztu eta gauzatu dira eta, aldi berean, aztertutako kasuak baliagarriak izan dira lan-koaderno honetan eta hurrengoan (idazten ari gara) aurkeztuko dugun proposamen analitikoa eraikitzeko prozesua ainguratzeko, hari eusteko eta erkatzeko.



modernitatearen eta kapitalismoaren zibilizazio-krisi sistemikoan<sup>22</sup>. Horiek horrela, gure ustez, jendarte-mugimenduek (besteak beste) ahalmena dute premiaz egin beharreko gizartearen eraldaketa emantzipatzailean eragina izateko. Hain zuzen, lan honetan bereziki nabarmentzen dugu zenbateko garrantzia izan lezakeen xede horiek lortzeko *bestelako nazioarteko lankidetzak* bat izateak, subjektu eraldatzaileak sendotzea eta aliantza berriak sustatzea ipar bezala lukeen lankidetzak, beti ere emantzipazio prozesuekin konpromiso politikoa erakutsi nahi duena.

Aurreko orrietan ere adierazi dugunez, jendarte-mugimendu askok denbora luze daramate menpekotasun sistemikoen egiturazko arazoak hausnartzen, aztertzen eta zehazten. Era askotako menpekotasunak sorrarazten dituzten egitura eta logikei aurre egiten diete; eta, aldi berean, prozesu, logika, antolakuntza forma, harreman eta jakintza kontra-hegemonikoak eraikitzen dituzte. “Beste zer bait” eraikitze prozesuetan, hau da, dominantea denarekiko alternatiba eraikitzean, mugimendu horiek subjektu estrategiko bilakatzen direla uste dugu, aurrerago zehaztasun gehiagoz azalduko ditugun hiru arazoi orokor hauek direla-eta: milaka emakume eta gizonen partaidetza metatu dute mobilizazio agenda bateratuetan; maila guztietan -tokian tokikoa, eskualdeka, estatu mailan, mundu mailan (kasu batzuetan besteetan baino indartsuago)-egituratu dira zapalkuntza modu ezberdinei aurre eginez eta eutsiz; behetik eta paradigma askatzaile berrietatik eraikitako proposamenak gauzatu dituzte, eta proposamen horiek indarrean dauden eredu nagusien alternatiba bilakatu dira.

Orain arte ahalegin berezia egin dugu agertzeko azken hamarkadetan jendarte-mugimenduak nola ikertu eta eraiki diren aldaketarako eragile bezala, baina baita “ikerketa-objektuak” bezala ere. Horrez gain, aditzera eman nahi izan dugu “biratze epistemologiko” bat izan dela, eta, horren ondorioz, ikertzaileen rola eta jendarte-mugimenduek sortzen duten jakintza beste era batera ikusten hasi direla. Horrekin loturik jendarte-mugimenduak beste modu batera aztertzen hasi dira. Hortaz, “biratze” horren ondorioz, jendarte mugimenduak “ikerketa-subjektu” gisa pentsatzen

ditugu eta baita, mugimendua bera, prozesu askatzaile bezala ere. Horrek eztabaida ugari piztu du, eta une hauetan eztabaida horietan gaude murgilduta. Guk jendarte-mugimenduak ulertzeko beste molde berri-tzaile horrekin egiten dugu bat. Alabaina, argitu dezagun hobeto, zer esan nahi duen eta zein ondorio duen jarrera epistemologiko honek.

Guri dagokigunez, jendarte-mugimenduak “ikerketa-subjektuak” direla esaten dugunean, alde batetik, gure ikuspegiak ikerketa prozesuan parte hartzen duten jakintza ezberdinen arteko simetriak bilatzen dituela esan nahi dugu, hau da, subjektu-subjektu ikuspegia. Ikuspegi hori urrutiratu nahi da nagusi den ikuspegi klasikotik, jakintzen arteko asimetria indartzen duen ikuspegitik, hau da, subjektu-objektu ikuspegitik. Bestetik, esan nahi dugu ikerketa-jardunean ikerlariak eta aktibistak rola hurbiltzeko eta partekatzeko ahalegina egin beharra dagoela; hartara, denok sentitzen gara arduraz inplikatuak aztertzen dugun errealitatean, eta denok izan gaitezten gai ikertutako errealitateari buruzko jakintza baliagarriak (eta, jakina, kokatuak) sortzeko.

Aldi berean eta inplizituki, auzi horien bidez, erantzuna ematen diogu ikerketa-lan honen *zergatiari* eta *zertarakoari*; esplizituki azaldu nahi dugu ikerketa-prozesu honen bidez, jakintza askatzailea eraiki nahi dugula. Hau da, ez dezala ordenatu eta erregularizatu egileen kanpokotasun ezinezko batetik; aitzitik, zalantzan jar eta aska dezan, egileek errealitate bati buruzko jakintza eraikitzean hartzen duten inplikazio eta arduratik. Ez dezala objektibatu, subjektibatu baizik; eta, beraz, definitu ditzala bere kategoriak aztergai diren eragileekin eragin-trukea edukiz. Azken batean, eredu hegemonikoek (jakintzen arloan ere bai) sorrarazten dituen menpekotasun eta bereizkeria-mota guztiei aurre egiteko, baliagarria izan daitekeen jakintza-mota bat sortu nahi dugu. Hau da, emantzipazio sozialaren zerbitzura eta emantzipaziorako prozesuak protagonizatzen duten eragile kontra-hegemonikoen zerbitzura.

Jarrera epistemologiko hori arazoizkoagoa eta zientifikoagoa iruditzen zaigu, zientzia modernoan nagusi den

<sup>22</sup> Wallersteini jarraiki (2004), gure ustez, kapitalismoa ez da soilik sistema ekonomiko bat, zibilizazioa da; gaur egun, sistema-mundu modernoan krisian dagoen zibilizazioa da.



paradigma positibistak aldeztu duen ustezko kanpoko-tasun neutrala baino (objetibismo zientifikoaz estal-itako hori baino). Gainera, gure jarrera hau bat dator gaur egun zientziaren filosofian egiten ari diren eztabai-dekin, biratze auto-erreflexiboa izaten ari baita diziplina zientifiko guztietan; batez ere, gizarte-zientzietan, orri batzuk aurrerago adierazi dugun eran.

Gure ustez, errealitatearen analisi ahalik eta konplexu eta osatuena egiteko dagoen modurik zientifikoena, ikerlanaren zergatia eta zertarako agertzea eta erantzukizun, sistematikotasun, zorrotasun, irekiera eta apaltasun printzipioei jarraitzea.

Hurrengo idatz-zatian xehetasun gehiagoz ikusiko dugu ea egokia ote den jendarte-mugimenduen egokitasuna menpekotasunetik askatzeko subjektu gisa; hau da, mugimenduak berez prozesu askatzaileak direla eta, aldi berean, menpekotasunetik askatzeko prozesu estrukturalen sustatzaile direla. Orain, ahalegina egingo dugu garbi azaltzeko zer dela-eta erabaki dugun jendarte-mugimenduak askatzaile gisa sailkatzea, eta ez soilik eraldatzaile gisa<sup>23</sup>. “Menpekotasunetik askatze”, “askapen” edo “emantzipazio” kategoriak hartzen baditugu, “eraldaketa” bigarren mailan utzita, beste era batera ulertuko ditugu gizartean izan diren “eraldaketak” eta “aldaketak”: zerbaitetan “eraldaketak” edo “aldaketak” sustatzeak ez du berariaz azaltzen norantza edo zein zentzutan egin nahi den aldaketa hori gure gizarteetan dauden menpekotasun eta bereizkeriazko harremanei dagokienez (sexista, koloniala, arrazista, klasista, nazionala, linguistikoa, homofobia, etab.). Emantzipazioa edo askapenaren kategoriak, aldiz, ez dio aipamenik egiten edozein motatako eraldaketari edo aldaketari, baizik eta dependentzia asimetrikoetan oinarritutako harremanetik dependentziarik ez duten harreman askeetara igarotzeko aukera emango diguten aldaketa horiei: aldaketa emantzipatzaileak. Hortaz, bada, eraldatzeko prozesu hauen bereizgarria da ahuldu egiten dituztela asimetrian, mendekotasunean, zapalkuntzan eta antzeko egoere-

tan oinarrituta dauden harremanak eta egiturak. Era horretan, gainera, beste era bateko harremanak eta egiturak egon daitezten lortu nahi du, hau da, askatzaileak eta simetrikoak diren harremanak (menpekoak edo menperakuntzakoak ez direnak).

Izan ere, azken hamarkadetan, areago sakondu eta konplexuago bilakatu da gizarteko aldaketa kontzeptualizatzeko eta ulertzeko prozesua: gizartea etengabe aldatzen eta eraldatzen ari da, gizarteko egiturak eta instituzioak ez dira guztiz finkoak eta zurrunkak, aitzitik, magmatikoak dira (Castoriadis, 1998). Etengabe sortzen dira aldaketak, eragileen artean izaten diren indarren korrelazioen eta boterezko elkarreraginen arabera, eragile horiek guztiek aldaketak baitakartzate (batzuek, zenbait oinarri, balio eta eredutan oinarrituta; eta beste batzuek, berriz, bestelako oinarriak aintzat hartuta). Hala, bada, esan dezakegu eragile guztiek eraldatzen dutela, batzuek nagusi den ereditik-haien abantailei eusteko edo eraldatuz areago handitu daitezten lortzeko-, eta beste batzuek, berriz, finkatuta dauden menperakuntza eta mendekotasuneko era askotako moldeei erreparatu, beste eredu, proposamen eta jokatzeko era batzuetatik abiatuta, pribilegio eta zapalkuntzako molde jakin batzuk gainditzeko asmoz.

Hortaz, jendarte-mugimenduengana hurbilduko gara mendekotasunetik askatzeko subjektuak direla aintzat hartuta; hau da, eraikitzen dituzten ekarpen kognitiboak, harremanezkoak eta materialak aztertuz, eta, orobat, izaera patriarkal, kolonial eta kapitalista nabarmena duen modernotasunak ezarritako zapalkuntzako errealitateak gainditzeko abian jarri dituzten estrategiak eta prozesuak ikertuz.

Horretarako, ahalegina egingo dugu funtsezkoak diren hiru auzi hauei erantzuna emateko eta justifikatzeko:

- A) Jendarte-mugimenduen menpekotasunetik askatzeko subjektu gisa duten egokitasuna; zer dela-eta planteatzen dugun jendarte-mugimenduak

<sup>23</sup> Historikoki, ezkerrek “eraldaketa” kontzeptua hartu zuen zabalkunderako (“askapena” ere bere oinordetza teoriko-ideologikoaren funtsezko zati bat da), eskuineko indar politikoez ustez kontserbadoreak direlako eta ez dutelako nahi gizarte-eredua eta finkatutako *statu quo* eralda daitezten. Hala ere, haien nagusitasunari eustea da gehien interesatzen zaiena eta, horretarako, gaur egun eraldaketak egiten ari dira, egiturazko eraldaketak ere bai. Ildo horretan, lan- eta gizarte-eskubideak ezabatzeko prozesua dugu abian, egiturazko (eta ez koiunturazko) murrizketak eta doitze-programak darabiltzan ortodoxia ultraliberala nagusitu baita, agenda neoliberalak ezartzean egon daitekeen diziplina eza oro zigortzen duten nazioarteko erakundeen teknokraziaren (NDF, MB, EBZ) eta finantzako eliteen zaintzapean.

subjektu estrategikoak direla gizartea eraldatzeko prozesuak indartzeko, eta gizarteko sektore batzuek beste batzuekiko dituzten menpekotasunezko harremanak gainditu ahal izateko.

- B) Zein alderdik zehazten duen jendarte-mugimenduen izaera askatzailea. Hau da, zein bereizgarri duten jendarte-mugimenduek, dependentziazirik eta menperakuntzazirik gabeko harremanak eta egiturak eraikitzen eta bultzatzen dituzten subjektu politikoak diren aldetik.
- C) Zein osagai eta joera diren lagungarri jendarte-mugimenduen izaera askatzailea sendotzeko, eta zein osagaik ahultzen duten izaera hori.

Lan-koaderno honen hedadura gehiegi ez luzatzeko, testu honen hurrengo orrietan lehenengo auziari ekingo diogu; eta hurrengo bi auziak, berriz, Hegoa Institutuaren lan-koaderno hauen hurrengo ale batean landuko ditugu.

### 3.1. Jendarte-mugimenduen egokitasuna, menpekotasunetik askatzeko subjektu diren aldetik

Lehenik eta behin, bereziki nabarmendu nahi dugu zer dela eta esaten dugun jendarte-mugimenduak oso eragile garrantzitsuak direla emantzipazio prozesu kolektiboak aktibatuzko orduan.

Ildo honetako lehenbiziko hausnarketari jarraiki, jendarte-mugimenduak dira gizartean dauden zapalkuntza formak eta harremanak era kritikoa lantzen dituzten eragileak; hau da, jarrera kolektibo ez-konformista eta pro-aktiboa dute behar bezala ez dabilen gauzekiko, gizarte-sektore batzuk gutxiagotzen eta bazterten dituzten harremanekiko. Erantzun kritikoa eta aktiboa ematen dute, eta, berrikuntza gisa, erantzun hori gero eta osokoagoa da menpekotasun forma ugari erantzunez, zapalkuntza-mota batzuk beste batzuen gainean edo azpian hierarkizatu gabe. Kritika eta salaketa egiteaz gain, eragile kolektibo horiek dira, euren praktika eta lan auto-eratzzailearen bidez, forma berritzaileak bilatzen dituztenak harremantzeko, gizarteko elkarbizitza antolatuzko eta borroka politiko emantzipatzailea sustatzeko.

Bestetik, jendarte-mugimenduek eragile askatzaile gisa

duten egokitasunak zerikusia du jendarte-sistemaren ertzetan edo periferian betetzen duten kokapenarekin; kokapen sozial horietatik, edo kokapen sozial horietan daudenekin identifikatuz, ikusgarriago egin baitaitezke finkatuta dauden botere-egiturak eta egitura horien aurreandauden alternatibak. Zentzu horretan, jendarte-mugimenduak gizarteko ertzen (menpekotasunen) adierazpen egituratu baten gisa eratuta daude eragile politikoak dira. Hortaz, kritikoki aztertzen dituzte zeintzuk diren hainbat pertsona pairatzen duten sufrimendu eta menpekotasuna elikatzen dituzten mekanismo kulturalak eta materialak. Hala, etengabe ari dira jakintzak, proposamenak eta konponbide alternatiboak bilatzen, zehazki, gizarteko desoreka eta asimetria horiek indartzen dituen eredu bera berregingo ez duten alternatibak. Hori guztia kontuan izanik, ezinbesteko erreferente dira gure gizarteetan dauden krisiei irtenbide emantzipatzaileak eraikituzko orduan. Gure ustez, eragile politikoak eta errealitate sozialak sortzen dituzten espazioak diren aldetik, haien egiturazko kokapen eta baldintza objektiboek (menpekota den periferia, sistema sozialaren ertzak) eta baita haien baldintza subjektiboek ere (jakintza, proposamen eta praktika alternatiboen bilaketa proaktiboa) sormen eta berrikuntza soziala eta politikoa elikatzen dute.

Horren adibide dira ekologismo, feminismo, nekazari eta indigena mugimenduetatik proposatzen ari diren bizitza eta elkarbizitzari buruzko ikusmolde berritzaileak. Ikusmolde horietan bizitza erdigunean kokatzen dute eta, horrenbestez, ekonomia bizitzaren zerbitzuan egongo da, eta biosferaren azpisistema izango da, alderantzikoa gertatu ordez. Bestelako zibilizazio alternatiboa irudikatzen duten proposamenak dira, modernotasun kolonial, patriarkal eta kapitalistaren ondoriozko gizarte-ereduaren alternatiba. Berrikuspen eta alternatiba horiek, elikaduraren burujabetasuna, des-hazkundera, ekofeminismoa, ongi bizitzea eta elkarbizitza ona izatea lantzen dituzte; eta, hortik abiatuz, adierazten dute oraingo egoera historikoan kapital eta bizitzaren arteko gatazka dela gatazka nagusia. Ondorioz, kapitala metatu eta erreproduzitu beharrean, bizitzaren erreproduzizioa eta iraunkortasuna da lehenetsuen erdigunean kokatu behar duguna: produktibismo, metatze eta etekinaren logikak ezin dira bateratu elkarren zaintzarekin, ondo bizitzearekin, ezta planetako bizitzaren iraunkortasunarekin. Hortaz, ondoko erreferentzia hauek darabiltzate proposamenen ipar bezala:

“...harreman harmoniatsuak eta elkar babestekoak sortzea *bizidun* denaren artean: gizakien artean zein gizakien eta naturaren artean. (...) *Iraunkortasuna eta bizitzaren erreprodukzio hedatua*-ez kapitalarena-lortzeko, aldaketak egin behar dira ikuspegietan eta politiketan: nork eta nola egin ekonomia, zer eta nola ekoitzi, zer eta nola kontsumitu, eta, azken batean, nola erreproduzitu eta zaindu bizitza. (...) Ikuspegi alternatibo horrek aukerak zabaltzen ditu subjektibo edo pribatutzat hartzen denaren ekonomia politikoa berriz aztertzeko, adibidez, nortasunak, sexualitateak, zoriontasuna...” (León, 2010: 8-9).

Gai horiek guztiak debatean daude gaur egun erakunde eta sare feministen, ekologisten eta nekazarien ekoizpen kognitiboetan, besteak beste. Horrez gain, zenbait herrialdetan lortu egin dute kezka eta gai hauek eztabaida politiko eta konstituzionalean agertzea, adibidez, Ekuadorren edo Bolivian. Izan ere, herrialde horietan, jendarte-mugimenduek egindako borrokari esker lortu ahal izan da beste gizarte-eredu eta beste zibilizazio-aukera batzuetarantz jotzeko premia eztabaida sozial, politiko eta konstituzionalean sartzea, horrek dakartzan zailtasun, tirabira eta gatazka guztiekin. Era berean, Venezuelan, Kontseilu Komunalak bultzatzen ari diren autogestiorako edo ko-gestiorako prozesuak, aukerak zabaltzen ditu herriak bereganatu dezan dagoen protagonismoa eta eskumena jabetza-ereduen, ekonomia moduen eta gizarteko alternatiben inguruan.

Izan ere, funtsezkoa da herri-mugimenduek eztabaida eta imaginario politikoan aniztasunari egiten dieten ekarpena. Dagoen errealitatek harantz egon daitekeena irudikatu nahi dute eta, hargatik, Leonardo Avritzer eta Boaventura de Sousa Santos jarraiki, esan dezakegu jendarte-mugimenduek arlo politikoa zabaltzen dutela: dominanteak diren praktikak zalantzan jartzen eta eraldatzen, jendearen inplikazioa handitzen (politikoki aktibatzeko erraztasuna emanez), baztertutako gizarte-sektoreen sentipena politikan txertatzen, eta bazterkeria sortzen duten gizarte-ereduak kritikoki berrikusten eta inklusiboagoak diren bestelako ereduak proposatzen dituzten eragileak direla.

“...historikoki demokrazia-moldea aldatzeko esperientziarik esanguratsuenak jendarte-mugimenduek sortu dituzte, hain zuzen, bazterkeria sustatzen duten praktika sozialak sakonki astintzen

dituzten ekintzen bidez, elkarbizitza arau berriak eta gobernua kontrolatzeko formak sorrarazten dituzte” (Avritzer; Santos, 2003: 21).

Izan ere, autore horiek ezaugarri antzeko batzuk identifikatzen dituzte emantzipazio prozesuetan eta demokratizaziorako edo demokrazia sakontzeko prozesuetan: oro har, biek ala biek dakarte liskar politiko sakona berekin, era askotako gizarte-eragileen protagonismoa handitzen delako, eta, horren ondorioz, berrikuntzarako aukerek gora egiten dutelako. Horrez gain, ordura arte ezagutzen ez ziren, aintzakotzat hartzen ez ziren edo bazterrekoak ziren kezkek eta gaiak sartzen dituzte gizarteko eztabaidetan eta sistema politiko-instituzionalean. Bestalde, prozesu horietan nortasunak eta loturak berriz definitu ohi dira, eta eredu inklusiboetarantz jo ohi da; hau da, besteak behertzen dituen nortasun nagusi bakar bat ezartzeko joera totalitaristen aurrean, onartu egiten dira gizakiaren zehaztugabetasuna eta aniztasuna, eta arbuia egiten dira gizartea antolatzeke forma homogeneizatzaileak eta arrazoiaren kontzepzio absolutuak.

Oro har, jendarte-mugimenduek demokrazia praktika gisa sakontzen eta biziagotzen dute, ez baitute derrigorrezkotasun bezala onartzen prozesu historikoen gaurkotasun aldagarrria.

García Linerak hala dio Boliviako jendarte-mugimenduei buruz: “horiek horrela, jendarte-mugimenduak gizartea demokratizatzeko tresnak dira, eta gaitasuna dute instituzionalizatutako esparru politikoak dituen egiturazko eskemak eraldatzeko”. Eta, horrekin batera, gaineratzen du jendarte-mugimenduak bazterkeria bultzatzen duten gizarte-instituzioen gaintitze demokratiko gisa har daitezkeela. Hala ere, indarren korrelazioaren esku dago, eta boterezko harremanetan dagoen lehiaren mende ere bai...

“beren eskaera, praktika eta antolakuntzako diseinu batzuk egitura normatibo orokor bihurtzea, eta, horren ondorioz, gerta liteke estatua (*edo instituzioak, estatuen azpitik edo estatuen gainetik maila gehiago sartzearen*) berriz diseinatzea; hala izatekotan, egitura normatibo orokor horrek oso desberdina izan beharko du, gaur egun arte ezagutu ditugun estatu errepublikanoen mota guztiekin alderatuta” (García Linera, 2010: 19-20. Letra etzanak geuk jarri ditugu).

Ildo horretan, Ezequiel Adamovsky (2009) ere ekarpen interesgarria egiten du. Bere ustez, ikuspegi estrategikotik, jendarte-mugimenduak bi egoera hauetan daude: alde batetik, gizarte-energia aski garrantzitsua mobilizatzea lortzen dute gizarte-aldaketa sakon baten alde; baina, hori lortzean, instituzioen politika heteronomoaren amarruetan erortzen dira, hau da, botere-harremanetan eta egiturazko eraldaketetan energia mobilizatzailer horrek izan dezakeen inpaktua minimizatzen duen politika instituzionala. Bestetik, beste egoeran, taldeek eta mugimenduek beren politika autonomoa hartzen dute ardatz gisa, eta arbuiatu egiten dituzte politika heteronomo eta instituzionalekiko lotura guztiak, nahiz eta, horren ondorioz, oztopo ugari aurkitu gizartearen zati handi bat mobilizatzeko edo eragin handiko aldaketak sorrarazteko<sup>24</sup>.

Azken batean, Adamovsky-ren bereizketa horrek planteatzen du, esparru estrategikoan, hausnarketa egin behar dela mugimenduek egiten duten politika autonomoa dagoen *impasse* estrategikotik atera dadin, eta aurrera egin dezan merkantilismo hondatzaileari eta horri loturik dagoen arlo publikoaren kudeaketa burokratizatua eta desarrollistari aurre eginez, gizarte eta instituzioen bizitza beste modu batez erregulatzeko. Estrategiak, eta berarekin bat datorren jarrera aktibistak, argi ikustarazi behar du zein den merkatua eta estatu liberala alde batera utzi eta gizartea kudeatzeko beste molde batzuk nagusitzeko proposatzen den transizioa edo iragaite-bidea. Jendartedynamika berriak eta beste mota bateko instituzio politikoak aktibatuz eta bizitza zein demokrazia eredu desberdinak proposatuz; beti ere, elkar bizitza arautzea eta kudeatzeak duen maila ezberdinetako konplexutasun osoa aintzat hartuta. Hurrengo lan-koadernoan, ale honetan abiarazitako hausnarketa osatze aldera, berriz helduko diogu eragin zabaleko estrategiei buruzko eztabaidari eta horretarako behar diren beste eragile politikoekiko harremanen gaiari.

Testu hau amaitzeko, “jendarte-mugimendu” deitzen dugun ekintza kolektiboaren ezaugarriak eta zehaztapen

kontzeptuala aurreratuko ditugu, baita azterketarako baliatuko dugun eskema aurkeztu ere; hau da, jendarte-mugimenduen ezaugarri emantzipatzaileak zehazte aldera jarraituko dugun eskema.

Lehenik eta behin egin dezagun zehaztapen kontzeptuala, zehatz ditzagun “jendarte-mugimendu” deitzen dugun ekintza kolektiboak dituen berezko ezaugarri bereizgarriak:

- Ekintza kolektibo mota hau elkarte eta talde ezberdinek protagonizatzen dute; edozein pertsonentzat sarbide erraza izaten dutenak haiekin bat egiteko -beti ere zapalkuntza, kontrola edo infiltrazioa dela-eta funtzionamendu klandestinoak edo erdi-kldestinorik ez badute-. Haien egitura ez dago oso formalizatuta, ez eta hierarkizatuta ere. Beren autonomiari eutsiz, mundua ulertzeko eta munduan egoteko modu kritiko edo ez-konformista (menderakaitza, errebelde, disidente) baten inguruko taldeko nortasuna eta kideasuna sortzen dute. Ezarrita dauden botere-egitura jakin batzuk salatzen eta desnaturalizatzen dituzte, eta ez dute onartzen indarrean dauden gizarteko egiturek, aurreikuspenek eta konbentzioek ezartzen dutena.
- Hargatik, mezuak, diskurtsoak eta eskema kognitiboak sortzeko duten gaitasunaren bidez, interes orokorreko zenbait eskaera eta beharizan kolektibo agertzen dituzte. Horretarako, gatazkaren logika politikoa baliatzen dute, aurkariak eta erantzukizun politikoak identifikatu eta sarritan aurkakotasunezkoak eta arau-hausleak diren mobilizazio-moldeak erabiliz. Instituzioen sistema juridiko-politikoak sarritan errepresioaren bitartez erantzuten du; izan ere, gehienetan botere politiko instituzionalizatua eskuratu nahi ez badute ere, bai eraldatu nahi dituzte gizartean (bere osotasunean) indarrean dauden botere-harremanak.
- Horrekin batera, praktika alternatiboak eta eraikuntzan dauden proposamenak gauzatzen dituzte; herri, giza-talde eta pertsona guztientzat aldarrikatzen duten menpekotasunik gabeko harreman aske eta solidarioen aurrerapena egin nahian.

<sup>24</sup> Ezequielek berak azpimarratzen duenez, bi egoera horiek bereizketa analitiko bat dira, baina, hala ere, ez ditugu begietatik galdu behar forma politiko berrien esperimintuen aniztasuna eta ugartasuna, ez eta ekimen askok eskuratzen dituzten lorpen garrantzitsuak ere, lorpen horiek “jendarte-mugimenduak, osotasun baten gisa, duen borrokarako errepertorioaren zati bat baitira, eta geuretzat har ditzakegun desira eta bilaketa askatzaileak adierazten baitituzte” (Adamovsky, 2009: 346).

Jendarte-mugimenduek egiten duten ekintza kolektiboa beste ekintza kolektibo mota batzuetatik bereizteko azaldu ditugun ezaugarri orokor horiek abiaburutzat hartuta, jarraian, jendarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen duten joera bereizgarri batzuk zehazten saiatuko gara; hau da, prozesu askatzaileetako eragile diren aldetik dituzten bertuteak eta sendotasunak. Bestetik, prozesu askatzaileetan duten eginkizuna ahuldu edo mugatu ditzaketen ezaugarri batzuk paratu ditugu, hau da, eragile askatzaile gisa eduki ditzaketen ahuldade eta gabezia batzuk. Horretarako, eskema baten arabera sailkatu ditugu ezaugarriak, eta, jendarte-mugimendutzat hartzen dugun ekintza kolektiboaren goiko definizioa aintzat hartuz, alderdi hauek bereizi ditugu:

- A) Antolakuntzako praktikak eta kulturak: sarrera, irisgarritasuna, kide izateko sentipena, autonomia, antolakuntzako funtzionamendua, subjektibotasunen eraikuntza, etab.
- B) Errealitatearen diagnostikoa eta proposamen eraikitzaileak: aldarrikapenak, diskurtsoak, mezuak, sormena eta ekoizpen kognitiboa.
- C) Proposamenak egiten aurreratzeko baliatzen diren estrategiak: jardute mobilizatzaileak, logika politikoak, eraikitze jardute alternatiboak, beste eragile politiko batzuekiko harremanak, etab.

Sailkapen horrek jasotzen ditu ikuspegi teoriko ezberdinetatik aztertu diren alderdiak: antolakuntza eta baliabide mobilizatzaileei dagokienez, ekoizpen kognitibo, diskurtsibo eta identitarioari dagokienez, eta aurkakotasun politikoaren dinamikan aukera politikorako egiturari dagokionez ere. Hala ere, aurkeztu dugun ezaugarritzea eta alderdi ezberdinen eskema sailkatzailea ez ditugu sortu xede deskriptibo edo analitiko hutsekin, maiz zerikusirik ez baitute mugimenduek berek dituzten helburuekin. Horregatik, ezaugarritzea eta alderdi ezberdinen sailkapena hausnarketa eta eztabaidarako tailerretan prestatu ditugu. Tailer horietan etengabe aritu dira parte hartzen mugimendu askotako eragileak, eta lan-talde misto baten dinamikan hainbat jendarte-mugimenduren sareetakoak eta erakundetakoak diren lagunek hartu dute parte. Era horretan, guzti honen debata eragile horien helburuak indartzeko lagungarria izatea bilatzen dugu eta, horrela, jakintza askatzailea lortzea; hau da, ordenatu eta arautu gabe, kuestionatzeaz eta askatzeaz arduratuko den jakintza izatea. Azterketaren

subjektuak diren eragileekin kategoriak eztabaidatu ondoren, objektibatu beharren subjektibatuko duen jakintza.

Hortaz, era horretan, hurbildu gara mugimenduen ekarpenak abiapuntu hartzen duten ikuspegietara. Ikuspegi horien arabera, trantsizio paradigmakoaren garaian eta gizarteko aldaketa aztertzerakoan erabilgarria eta beharrezkoa da intuizio eta joeren arabera jokatzeari; baina, bestetik, ezinbestekoa da behar bezala argitzea intuizio eta joera horiek non sortzen diren eta zertaz elikatzen diren. Zibechik honela adierazten du:

“(…) intuizioak dira. Baina intuizio horiek mundua aldatzeko baimena eskatzen ari ez diren pertsonen ondoan egindako gizarte-ekintzatik eta hausnarketatik sortzen eta elikatzen dira. Hipotesi horrek ia ez du ezagutzera eman nahi zenbait esperientziaren berri; hala ere esperientzia horiek, hain dira aberatsak, sakonak eta indartsuak, non gauza baitira erresonantzia afektiboak sorraraziz hedatzeko, metaketa baino sinpatia bultzatuz. Mugimenduek sorrarazten dituzte aldatetak, baina ez soilik gizarteko indar-korrelazioa aldatzen delako -hain zuzen, aldatzen da-eta-, baizik eta haiengan gizarteko loturak eratzeke moldeak sortzen-hazten-ernaltzen direlako, eta molde horiek mundu berria eraikitzeke behar den kareorea direlako. Ez dira mundu berriko haziak-ernamunak-kimuak, mundu honetakoak baizik” (Zibechi, 2008: 58).

Horregatik, lan honen bidez ez dugu aurrekaririk ezarri nahi jendarte-mugimenduen izaera askatzailearen ezaugarriei dagokienez. Hau ezaugarri horien gaineko hausnarketa kolektibo eta mugatu bat da, aztergaiari begirada eta mugapen bat ipintzen diona. Hala, beraz, hausnarketa zabalik zabalik jarraituko du; izan ere, hausnarketa orok ezinbestez duen izaera kokatua eta mugatua dela-eta, oraingoz barne hartu ez diren osagai, alderdi eta errealitateetara irekita egongo da. Horrez gain, aintzat hartu behar dugu gizarte-azterketa guztiek halako tentsio mugatzaile bat dutela, batetik, konplexutasuna mugatzeko eta aztertu ahal izateko bereizten eta sailkatzen duten kategoriak erabili beharra baitago (gertakari kolektiboek buruz hausnarketa egin ahal izateko), eta, bestetik, horrek dakarren gizarteko kasuistika konplexu, aberats eta askotarikoa murriztea.

Azkenik, ezaugarri eta bereizgarri horiek ez dira azalduko unibertsal bihurtzeko zentzuan. Prozesu historikoak eta, orobat, testuinguru bakoitzeko idiosinkrasia kultural eta politikoak bereizgarritz hornitzen ditu jendarte-mugimenduko hainbat adierazpen; eta, ildo horretan, zenbait alderditan, ezin dira bateratu sistema-mundu honetako erdigunean, erdi-periferian edo periferian sortutako mugimenduak.

Hala, beraz, arreta eta zuhurtzia horiek izanda, hurrengo lan-koadernoan ahalegina egingo dugu gizarte-mugimenduen izaera askatzailea indartzen dituzten bereizgarri eta joera batzuk zehazteko, eta, era berean, izaera hori mugatu edo ahuldu ditzaketen joera batzuk ere agertzeko. Bistan denez, joeraz ari gara, ez dugulako uste jendarte-mugimenduko erakunde eta sare guztiek ezaugarri horiek edukiko dituztenik edota ehuneko ehunetan beteko dituztenik. Aitzitik, joerak dira, neurri batean edo bestean lagungarriak direnak ekintza kolektibo mota honen izaera eta ekarpenak identifikatzeko.

## Bibliografía

- ADAMOVSKY, Ezequiel (2009): “Problemas de la política autónoma: pensando el pasaje de lo social a lo político”, hemen: Raphael Hoetmer (koord.), *Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales*, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- AGUILÓ BONET, Antoni Jesús (2010): “La democracia revolucionaria, un proyecto para el siglo XXI (Boaventura de Sousa Santos egindako elkarrizketa)”, *Revista Internacional de Filosofía Política* 35, Madril.
- ÁLVAREZ, Sonia (2009): “Repensando la dimensión política y cultural desde los movimientos sociales: algunas aproximaciones teóricas”, hemen: HOETMER, Raphael (koord.), *Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales*, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- AVRITZER, Leonardo eta Boaventura de Sousa Santos (2003): “Para ampliar el canon democrático”, (2011ko abenduaren 10ean egondako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://www.eurozine.com/pdf/2003-11-03-santos-es.pdf>>
- BRINGEL, Breno (2011): “El estudio de los movimientos sociales en América Latina: reflexiones sobre el debate postcolonial y las nuevas geografías del activismo transnacional”, hemen: FALERO, Alfredo et al. (arg.), *Pensamiento crítico y sujetos colectivos en América Latina*, Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad de la República, Montevideo.
- CASTORIADIS, Cornelius (1998): *Los dominios del hombre*, Gedisa, Bartzelona.
- CECEÑA, Ana Esther (2008): *Hegemonía, emancipaciones y políticas de seguridad en América Latina: dominación, epistemologías insurgentes, territorio y descolonización*, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- CECEÑA, Ana Esther (2012): “Dominar la naturaleza o vivir bien: disyuntiva sistémica”, *Revista Debates Urgentes. Investigación desde y para los movimientos sociales*, 1, Centro de Estudios para el cambio social, Argentina.
- DALTON, Robert eta Manfred Kuechler (arg.) (1992): *Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político*, Edicions Alfonso el Magnanim, Valentzia.
- DELLA PORTA, Donatella eta Dieter Rucht (1995): “Left-Libertarian Movements in Context: A Comparison of Italy and West Germany, 1965-1990”, hemen: JENKINS, Craig eta Bert Klandermans (arg.), *The politics of Social protest. Comparative perspectives on states and social movements*, UCL Press. Londres.
- EDER, Klaus (1996): *The social construction of nature*, Sage, Londres.

- ESCOBAR, Arturo (2003): "Mundos y conocimiento de otro modo. El Programa de investigación Modernidad/Colonialidad", *Revista Tabula Rasa*, 1, Kolombia.
- ESCOBAR, Arturo (2010): *Una minga para el postdesarrollo: lugar, medio ambiente y movimientos sociales en las transformaciones globales*, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- GARCÍA LINERA, Álvaro (koord.) (2010): *Sociología de los movimientos sociales en Bolivia: Estructuras de movilización, repertorios culturales y acción política*, Plural Editores, La Paz, Bolivia.
- GOFFMAN, Erving (1974): *Frame analysis*, Harper and Row, New York.
- HARAWAY, Donna (1995): *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Ediciones Cátedra, Colección Feminismos, Madrid.
- HARDING, Sandra (1996): *Ciencia y Feminismo*, Morata, Madrid.
- HERRERO, Yayo eta Marta Pascual (2010): "Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir futuro" (2012ko otsailaren 3an egindako kon-tsulata), hemen dago eskuragarri: <<http://www.rebelion.org/noticia.php?id=103036>>
- HOETMER, Raphael (2009): "Después del fin de la historia: reflexiones sobre los movimientos sociales latinoamericanos de hoy", hemen: HOETMER, Raphael (koord.), *Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales*, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- HUNT, Scott, Robert Benford eta David Snow (1994): "Marcos de acción colectiva y campos de identidad en la construcción social de los movimientos", hemen: LARAÑA, Enrique (arg.), *Los nuevos movimientos sociales; de la ideología a la identidad*, CIS, Madrid.
- IBARRA, Pedro (2000): "Los estudios sobre los Movimientos Sociales: estado de la cuestión", *Revista española de Ciencia Política*, 1. lib.- (2), 271-290.
- INGLEHART, Ronald (1991): *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*, Siglo XXI, Madrid.
- JOHNSTON, Hank y Bert Klandermans (arg.), (1995): *Social Movements and Culture*, University of Minnesota Press/UCL Press, Minneapolis/Londres.
- KITSCHOLT, Herbert (1986): "Political opportunities structure and political process, Antinuclear Movements in four Democracies", *British Journal of Political Science*, 16, 57-85.
- KRIESI, Hanspeter (1992): "El contexto político de los nuevos movimientos sociales en Europa occidental", hemen: BENEDICTO, Jorge eta Fernando Reinares (arg.), *Las transformaciones de lo político*, Alianza, Madrid.
- LANDER, Edgardo (koord.) (2000): *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, CLACSO, Buenos Aires.
- LEÓN, Irene (2010): "Resignificaciones, cambios societales y alternativas civilizatorias", hemen: LEÓN, Irene (koord.), *Sumak Kawsay/ Buen Vivir y cambios civilizatorios*, Fedaeaps, Quito.
- MALO DE MOLINA, Marta (arg.) (2004): *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*, Traficantes de Sueños, Madrid.
- MARTÍNEZ, Zesar (2002): *Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzza: globalizazio neoliberalari buruzko diskurtsoak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Orokorra, Vitoria-Gasteiz.
- MATURANA, Humberto (2007): *La Objetividad: un argumento para obligar*, Comunicaciones Noreste, Txile.
- MC ADAM, Doug (1988): *Freedom Summer*, Oxford University Press, New York.
- MCCARTHY, John D., eta Marfer Zald (1987): "Resource mobilization and social movements: A partial theory", hemen: BUECHLER, Steven M. eta F. Kurt Cylke (1997), *Social Movements: Perspectives and Issues*, Mayfield Publishing Company, Mountain View, Kalifornia.
- MELUCCI, Antonio (1995): "The Process of Collective Identity", hemen: JOHNSTON, Hank eta Bert Klandermans (arg.), *Social movements and culture*, University of Minnesota Press/UCL Press, Minneapolis/Londres, 41-63.



- MELUCCI, Antonio (1996): *Challenging codes. Collective action in the information age*, Cambridge University Press, Cambridge.
- NICOLÁS, Gemma (2009): “Debates en epistemología feminista: del empiricismo y el standpoint a las críticas postmodernas sobre el sujeto y el punto de vista”, hemen: NICOLÁS, G. eta Encarna Bodelon (konp.), *Género y dominación. Críticas feministas del derecho y del poder*, Anthropos.
- OFFE, Claus (1988): *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madrid.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2010): “Feminismo anticapitalista, esa Escandalosa Cosa y otros palabros” (2012ko otsailaren 3an egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=104450>>
- RIECHMANN, Jorge eta Francisco Fernández Buey (1994): *Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales*, Paidós, Bartzelona.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2006a): “Renovar la teoría crítica y reinventar la emancipación social”, (Buenos Airesen egindako biltzarrak), CLACSO (2012ko otsailaren 3an egindako kontsulta), hemen dago eskuragarri: <<http://biblioteca.clacso.edu.ar/ar/libros/edicion/santos/santos.html>>
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2006b): *Conocer desde el sur: para una cultura política emancipatoria*, Fondo Editorial de la Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad Mayor de San Marcos, Lima.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2008): “Reinventando la emancipación social”, hemen: *Pensar el Estado y la sociedad: desafíos actuales*, CLACSO, La Paz.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (2010): *Descolonizar el saber, reinventar el poder*. Ediciones Trilce, Montevideo.
- SNOW, David A. eta Robert D. Benford (1992): “Master Frames and Cycles of Protest”, hemen: MORRIS, Aldon eta Carol McClurg Mueller, *Frontiers in Social Movement Theory*, Yale University, New Haven.
- SVAMPA, Maristella (2011): “Movimientos sociales, matrices socio-políticas y nuevos escenarios en América Latina”, hemen: IBARRA, Pedro eta Mercé Cortina i Oriol (konp.), *Recuperando la radicalidad: un encuentro en torno al análisis político crítico*, Hacer, Bartzelona.
- TARROW, Sidney (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Alianza universidad, Madrid.
- TEJERINA, Benjamín (1998): “Los movimientos sociales y la acción colectiva. De la producción simbólica al cambio de valores”, hemen: IBARRA, Pedro eta Benjamín Tejerina (arg.), *Movimientos sociales, transformaciones políticas y cambio cultural*, Trotta, Madrid.
- TILLY, Charles (1978): *From mobilization to revolution*, Reading (Mass.), Addison -Wesley.
- TOURAINE, Alain (1990): *Movimientos Sociales hoy*, Hacer, Bartzelona.
- TOURAINE, Alain (1984): *Le retour de l'acteur*, Fayard, Paris.
- WALLERSTEIN, Immanuel (2004): *Capitalismo histórico y movimientos antisistémico. Un análisis de sistemas-mundo*, Akal, Madrid.
- ZIBECHI, Raúl (2007): “Ecos del subsuelo: Resistencia y política desde el sótano”, hemen: *Autonomías y emancipaciones: América Latina en movimiento*, Universidad Nacional Mayor de San Marcos, Fondo Editorial de la Facultad de Ciencias Sociales, Peru.

## EGILEENTZAKO ARAUAK

### Jatorrizko lanak bidaltzea

Erredakzio Kontseiluak zehatz aztertuko ditu aldizkariak duen xedeari loturik bidaltzen dizkioten lan guztiak. Artikuluak argitaragarbeak izango dira, beste hedabide batean argitaratu emateko inoiz aurkeztu gabeak.

Posta elektronikoko helbide honetara bidali beharko dira: hegoa@ehu.es. Posta elektronikoa bidez harremanetan jarriko gara artikulu sinatzen duen pertsona batekin (lehen egilearekin, berariaz bestelakorik adierazten ez bada), eta bidalitako lana hartu izanaren agiria igorriko diogu.

### Aurkeztutako lanak ebaluatzea

Jasotako artikuluak ebaluatzen hasteko, behar bezala bete beharko dira *Hegoa Lan-koaderno* ediziorako arau guztiak. Ebaluazioaren bidez, kalitate gehien duten lanak hautatuko dira, aldizkariaren izaera dela-eta jatorrizko lanen kopuru mugatua baizik ezin baita argitaratu. Prozesu horretan, Erredakzio Kontseiluak hasierako aukeraketa egingo du, eta Argitalpen Kontseiluko kide aditu batek edo kontseilu horrek izendatutako lagun batek berrikusketa egingo du gero. Azken kasuan, kanpoko beste aditu batzuek egin ahal izango dute berrikusketa. Erredakzio Kontseiluak artikuluen egileei jakinaraziko die testua onartu ala baztertu den, eta, era berean, berrikusi behar ote den.

### Argitaratzeko arauak

Egileei berariaz eskatzen zaie arreta handiz berrikusi ditzaten testua eta erabilitako terminologia, eta alde batera utz ditzaten formulazio nahasgarriak eta espezializatuak den jargoia ere bai. Horrez gain, sexista ez den hizkera erabiltzea gomendatzen dugu.

Testua 12 zenbakiko Arial letrarekin idatziko da, gehienez 50 orri izango ditu (DIN-A4 tamainakoak), eta orri bakoitzean 3.000 karaktere sartuko dira gehienez (espazioak ere barne hartuta), oharrak eta bibliografiako aipamenak aintzat hartu gabe. Oharrek ez dute 5 orri baino gehiago hartuko, eta aipamen bibliografiakoek, beriz, 7 orri. Oharrak orriaren oinaldean jarriko dira, eta zenbakituta joango dira, elkarren hurreneko zenbaki arabiarrekin. Testua *doc* (Microsoft Office Word) edo *odt* (OpenOffice Writer) formatuan aurkeztuko da.

Ez da ezer azpimarratuko, ez eta letra lodiz idatziko ere, izenburuetan izan ezik: izenburuak letra lodiz idatziko dira, 14 tamainan, eta 1., 1.1., 1.1.1., 2... eskemaren arabera zenbakituta. Testuko esaldi edo hitzen bat nabarmendu nahi izanez gero, letra etzanez idatziko da. Dezimalak idazteko, koma erabili beharko da beti.

Bidaltzen diren artikuluen lehenengo orrian, izenburuaren eta egilearen edo egileen aipamenaren ondoren, datu hauek azalduko dira: izena, abizenak, posta elektronikoa eta instituzioko datuak edo lantokia. Laburpen bat jasoko da, gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz; gehienez bost hitz gako hautatuko dira, artikuluen edukien

adierazgarri, eta horiek ere gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz jarriko dira.

Euskaraz edo ingelesez idatzita dauden testuei dagokien, egileek berez aurkeztu beharko dute gaztelaniazko itzulpena.

Sartzen diren koadroak, irudiak, taulak eta mapak testuan ondo txertatu beharko dira, behar bezala ordenatuta, eta jatorrizko iturrien identifikazioa zehaztuta. Izenburu egokiak izango dituzte, edukiaren adierazgarri. Koloreak erabiliz gero, erabili grisena eskala, eta bereizi lerroak sinbolo edo trazadura desberdinekin, aleak zuri-beltzean inprimatuko baitira. Hauek guztiak, gainera, *pdf*, *xls* (Microsoft Office Excel) edo *ods* (OpenOffice Calc) formatuetan bidali beharko dira bakoitza bere aldetik. Irudiekin batera, oinarritzko datuak dituzten fitxategiak bidaliko dira.

Egileak egokitzen jotzen duenean, formula matematikoen zehazketa zehaztuko ditu, zenbaki arabiarren erabiliz, kortexe artean jarrita formularen eskuinaldean. Formula matematikoen eta testuaren gainerako sinbolo guztiak, *pdf* formatuan bidali beharko dira.

Aipamen bibliografiakoak testuan sartuko dira, parentesi artean, eta egilearen abizena, eta, jarraian (koma baten ondoren) argitalpen-urtea (a, b, c, eta abar bereizita, elkarren hurreneko ordenan, zaharretik berrienera, egile beraren urte bereko lan bat baino gehiago aipatuz gero), eta, hala behar denean, orria adieraziko dira.

Adibidez:

(Keck eta Sikkink, 1998)

(Keck eta Sikkink, 1998; Dobbs *et al.*, 1973)

Oharra: *et al.* erabiliko da hiru egile edo gehiago direnean.

(Goodhand, 2006: 103)

(FAO, 2009a: 11; 2010b: 4)

(Watkins eta Von Braun, 2003: 8-17; Oxfam, 2004: 10)

Lanaren amaieran, zerrenda bibliografiako osoa jarriko da, egileen araberrak hurrenkera alfabetikoan, eta ondoko formak erabiliz, artikulua aldizkarian, liburuan edo liburu bateko kapituluaren atera den bereiziz. Hala behar denean, parentesi artean jarriko da lehen edizioaren edo jatorrizko bertsioren data.

Aldizkariako artikulua:

SCHIMDT, Vivien (2008): "La democracia en Europa", *Papeles*, 100, 87-108.

BUSH, Ray (2010): "Food Riots: Poverty, Power and Protest", *Journal of Agrarian Change*, 10(1), 119-129.

Liburua:

AGUILERA, Federico (2008): *La nueva economía del agua*, CIP-Ecosocial y Los libros de la catarata, Madril.

LARRAÑAGA, Mertxe eta Yolanda Jubeto (arg.) (2011): *La cooperación y el desarrollo humano lo-*

*cal. Retos desde la equidad de género y la participación social*, Hegoa, Bilbo.

Liburuko atala:

CHIAPPERO-MARTINETTI, Enrica (2003): "Unpaid work and household well-being", hemen: PICCHIO, Antonella (arg.): *Unpaid Work and the Economy*, Routledge, Londres, 122-156.

MINEAR, Larry (1999): "Learning the Lessons of Coordination", hemen: CAHILL, Kevin (arg.): *A Framework for Survival. Health, Human Rights and Humanitarian Assistance in Conflicts and Disasters*, Routledge, New York eta Londres, 298-316.

Webetik hartutako baliabideei dagokien, behar diren datuak aipatuko dira, liburua, liburuko artikulua, aldizkaria edo egunkariako artikulua den kontuan hartuta. Argitalpen elektronikoa den data eta aipua hartu zen eguna jasoko dira, parentesi artean, bai eta helbide elektronikoa edo url-a ere, < > ikurren artean, "hemen dago eskuragarri" esaldiaren atzetik. Adibidez:

NDF (2007): "Declaración de una misión del personal técnico del FMI en Nicaragua", hemen: *Comunicado de Prensa*, 07/93 zk., 2007ko maiatzaren 11 (2007ko abuztuaren 8an kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.imf.org/external/np/sec/pr/2007/es/pr0793s.htm>>.

ELGA (2001), *The DAC Guidelines: Helping Prevent Violent Conflict*, Development Assistance Committee (DAC), Paris (2010eko irailaren 10ean kontsultatua), hemen dago eskuragarri: <<http://www.oecd.org/dataoecd/15/54/1886146.pdf>>

Sigla edo laburdura bat lehenengo aldiz erabiltzean, bere esanahi osoa adierazi beharko da eta, horren ondoren, parentesi artean, gero baliatuko den sigla edo laburdura jasoko da.

## COPYRIGHT-AREN OHARRA

*Hegoa Lan-koadernoak* sailean argitaratzen diren artikulua guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratuko dira:



Reconocimiento-  
NoComercial-  
SinObrasDerivada 3.0 España

Orri honetan aurkituko dituzun agiriak Creative Commons lizentziaren babestuta daude.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Artikuluaren egileak edo egileek berariaz onartu beharko dute horrela.



